

KULTURA ETXEA/ PPren prentsaurrekoa Donostian

Donostian salatu zituen PPk kultura etxearen obrak

UBANE MADERA

Donostian duen egoitzan egin zuen prentsaurrekoa PPk. Gipuzkoako PPko presidente Maria Jose Usandizaga eta Arrasateko Udaleko PPko bozeramaile Itziar Lamarainek egin zuten prentsaurrekoa. Besteak beste, Arrasateko Udalaren jarrera salatu zuten.

Arrasaten behin baino gehiagotan egin dituen salaketak berretsi egin zituen Arrasateko Udaleko PPko zinegotzi Itziar Lamarainek atzoko (eguna) prentsaurrekoan: "Gauzak nola dauden argi ipini gura genuen".

ORDAINKETAK EGINDA

Halaber, jakinarazi zigun Arrasateko Udalaren jarrera "irregularraren" beste frog bat eskuratu dutela oraintsu eta horixe ere salatu nahi izan dutela Donostiako prentsaurrekoan. Hain zuzen

ere, azkeneko osoko bilkuran, Itziar Lamarainek zera eskatu zion Hirigintza Saileko teknikari buru Juan Antonio Urdangarini: ea badiren obrak ordaindu izanaren ziurtagiriak; hau da, osoko bilkurak onartu baino lehen kultura etxean egindako obrak ordaindu izanaren ziurtagiriak badiren. Gaineratu zuen, hala izanez gero, kontu-hartzailearengana joko zuela egoeraren berri emateko.

Bada, atzoko prentsaurrekoan Itziar Lamarainek jakinarazi

PPk salatu zuen osokoak onartu aurretik egindako obra batzuk ordainduta daudela

zuen esku artean duela halako ziurtagiri bat. Beraz, argi geratu dela "irregulartasunak" badi-rela Arrasateko Udalean.

ARGITASUN ESKE

Bestalde, oro har, prentsaurrekoan argitasuna eskatu zuten Udalaren jardunean eta argi utzi nahi izan zuen PP ez dagoela kultura etxea eraikitzearen aurka: "Ez gaude kultura etxearen aurka, baizik eta gauzak ondo egin daitezen nahi dugu".

Horrez gainera, Lamarainek gogorarazi zuen zinegotzi moduan hilabeteak daramatzala gai horren gainean informazio eske Hirigintza Sailean eta salatu zuen orain arte ezer gutxi lortu dutela: "Ez digute erantzunik ematen. PSE-EEkoak idatziz galdetu zuen eta hari ere ez zioten eman. Eta kultura etxearen gaia ez da bakarra. Beti da berdin eta beti batzorde berean".

Zerrajera eremuan 252 aparkaleku egokitu dituzte, behin-behinerako

U.M.

Herrian egiten dabilzan obren eraginez (babes ofizialeko etxeak, Garibaiko aparkalekua...) galdutako aparkalekuei aurre egiteko egokitu du aparkaleku berria Udalak. Behin-behinerako aparkalekua da, zenbait urtean erabiltzeko aurreikusitakoa.

Zerrajerako antzinako igerileku inguruan, Mecánicas Arrasate lantegia zegoen orubean egokitu ditu Udalak 252 aparkalekuak, lantegi hura bota eta gero.

Lehen esandako moduan, behin-behinerako aparkalekua izango da hori. Izan ere, orain Zerrajerako eremu horren antolamendua egiten dabil Udala. Esaterako, oraindik erabaki barik du zer egingo duen Arrasate Musikalen eraikinarekin; esku artean dituen aukeren artean erabaki beharko dute.

Horrez gainera, eremu horretan babes ofizialeko ehun etxebizitzatik gora eraiki behar ditu oraindik Etxebidek. Eta alokairuan emateko etxebizitzak eraikitzeko asmoa ere badute.

ETXEAK ERAIKITZEKO

Hala, orain behin-behinerako aparkalekua egokitu du Udalak Zerrajeran, herrian sortu diren aparkaleku beharrei aurre egiteko. Esate baterako, erdialdean, Garibaiko lur azpiko aparkalekuko lanen ondorioz aparkalekuak galdu dira. Baita



INEMaren atzeko aldean egokitu du Udalak aparkaleku berria.

MIKEL LUPIAÑEZ

Eremu horretan erabaki beharko dute zer egin Arrasate Musikalen eraikinarekin

Zerrajeran eraikitzen dabilzan babes ofizialeko etxebizitzaren lanen ondorioz ere.

Eta gero, eremuaren antolamendua erabakitzen dutenean, berregokitu egin beharko dute gune hura guztia. Eta aparkale-

Zerrajera eremuaren antolamendua erabakitzen dutenean, gunea berregokituko dute

ku berri hori egin duten lekuan, seguru aski etxebizitzak eraikiko dituzte.

Edozelan ere, hori egin arte urteak pasatuko dira eta ordura arte aparkaleku handia izango da Zerrajera eremuan.

LABUR

Biteri Ikastetxe Nagusiaren aurtengo ikasturtea estreinatuko dute, egubakoitzean

Azaroaren 25ean ekingo dio ikasturteari Biteri ikastetxeak. Ekitaldia egingo du horretarako, 19:30ean, Goi Eskola Politeknikoko seigarren eraikineko areto nagusian. MUko errektore Inazio Oliverik gonbidatuta, 200 lagun inguru izango dira ekitaldian, bestelako artean, eskolako zuzendari orokor Javier Retegi, Arrasateko alkatere Inazio Lakuntza, Gipuzkoako gotzain Jose Maria Setien eta Biteri Ikastetxe Nagusiko zuzendari Iñaki Madinabeitia. Ekitaldiaren ostean (21:00etan), Deabru Beltza taldeak batukada saioa egingo du.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen eguna izango da datorren egubakoitzean

Datorren azaroaren 25ean, emakumeek jasaten duten biolentziaren kontrako nazioarteko eguna da. Inguruko herrietan moduan, Arrasaten ere gogora ekarriko dute egun hori. Hala, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Plataforma Mistoak kaleagerraldia deitu du, 20:00etan, Herriko Plazan.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gobernuz kanpoko erakundeek ikastaroa

Sentsibilizazio ikastaroa abiaraziko dute Leintz ibarreko gobernuz kanpoko erakundeek. Elkar Hezi proiektuaren barruan dago ekimen hori, eta aurtengo hirugarren aldiz egingo dute. Arazo globalen nahiz tokian tokiko gaineko hausnarketa bultzatzea da helburua. Ikastaroa azaroaren 26an hasiko da, zapatua, eta sei modulutan banatuko dute. Eskola guztiak zapatuetan izango dira, eta martxoaren 11n egingo dute azkeneko modulua.

Santamasetarako kartela egiteko lehiaketa deitu dute

U.M.

Hilabete besterik ez da falta Santamasetarako. Udalean dagoeneko badabilza guztia antolatzen. Horren barruan, oraingo astean deitu dute jai iragarriko duen urteroko kartel lehiaketa.

Honako arauak zehaztu ditu Kultura Sailak lehiaketa horretan parte hartzeko: edozein pertsona parte har dezake; kartelen neurria 50 x 70 zentimetrokoak izango da; formatuak, nahitaez, bertikala izan beharko du; informatika euskarrian (disketea) ere aurkeztu ahal izango da kartela, Din A3ko tamainako paperean

inprimatuta; teknika librea izango da eta kartelak derrigorrez honako testua izan beharko dute: 2005 Santamasak Arrasate.

Bestalde, kartelak azaroaren 30eko 18:30ak baino lehen entregatu beharko dira, Udaleko Kultura Sailean.

SARI BAKARRA

Irabazleari 360 euro emango dizkio. Edozelan ere, kopuru horri PFEZren (IRPF) atxikipena aplikatuko diote.

Saritu barik geratu diren lanak, berriz, urtarrilaren 15a baino lehen jaso ahal izango dituzte egileek. Hala egin ezenean, jaso ez diren lanak Udalak libreki erabili ahal izango ditu.



arrasate

abenduaren
22an 2004

UDALA

Irudiotan, joan den urteko Santamasetako kartela.

ELKARRIZKETA

RENÉE HARBUSTAN/ZUBEROTARRA

“Benetan, hau da aukera ona Zuberoarengatik zerbait egiteko, beharrezkoa da”

ARRASATE IRRATIA/UBANE MADERA

Gabonei begira ipiniko gara segidan; izan ere, sasoi horretan opariak egiteko ohitura handia dugula aprobetxatuta, geuk opari berezi bat proposatuko dizuegu: otarreak. Eta gainera, otarre horiekin Zuberoako bi ikastolari lagunduko diegu. Hala kontatu digu Arrasaten bizi den Renée Harbustan zuberotarrak, ekimenaren bultzatzaileetako batek:

Aloze herriko Basabürü ikastolak eta Sohütako Eperra ikastolak otarre paregabeak eskaintzen dizkigute...

Bai. Iaz hasi ziren saltzen Hegoaldera eta aurten esan dute saltzen saiatu behar dela, eta esan didate erosleak aurkitzeko.

Azken batean, ikastolek beharrak dituztelako atera dituzte otarreak, ezta?

Bai. Benetan dute beharra. Diru aldetik ez dabilta oso ondo, gastu handiak dituzte. Aozeko ikastola da txikia, irakasle batekin, 13 ikasle bakarrik ditu. Eta bestea, Sohütakoa, handiagoa da; 2 urtetik 11 urterainoko ikasleak daude, 75, lau andereñoekin. Andereño guztien soldata gobernu frantsesak pagatzen du, baina beste funtzionamendu guztia gurasoek, dirulaguntzek... pagatzen dute. Eta, adibidez, aurten dute 153.000 euroko aurrekontua eta hori diru hori nonbait topatu behar da. Gurasoak ez dira asko, ez dira aberatsak. Bestalde, Zuberoan hamar herritako udalek ematen dute dirua, baina hori da aurrekontuaren %3 bakarrik. Beste diru guztia nonbait topatu behar da, eta egiten dituzte kanpaldiak, pastoraletan txosnak ipini, maskaradetan... Ahal den moduan.

Eta Gabonak gerturatzen doazenez, orain otarreak, ezta?

Bai. Eta otarreak dira oso gauza gozoekin egindakoak. Bat *Ira* ti da: kilo bat ardi gazta, ezti, *foie*

gras ahate gibelarekin, bizkotxoak eta Zuberoako patxarana. Horiek guztiak ikasleen gurasoek egindakoak dira, etxeko produktuak dira, guztiak biologikoak, gauza onak, eta pentsatzen dut prezio onean daudela.

Irati otarra, hortaz, 48 euroren truke...

Bai. Eta diru horren zati bat joango da ikastolen alde eta bestea joango da baserritarrei edo hango laborariei laguntzeko. Izan ere, hango laborarien egoera ez da oso ona.

Beste otarre bat ere bada...

Ahuzki. Ardi-gaztarekin, gerezi beltzeko mermelada, berbena belar poltsa bat eta Zuberoako patxarana. Oso gozoak, gauza finak dira. Horrek balio du 42 euro.

Gainera, Arrasatera ekarriko dizkigute, ezta?

Bai. Abenduaren 10ean etorriko dira Basaurira, Oiartzunera, Hernanira eta Arrasatera. Entregatzen dituzte paketeak eta gero nik banatuko ditut.

Zenbat eta gehiago eskatu, hobeto, noski.

Bai. Hemen jendeak beti esaten du: “Bai, Zuberoa lagundu egin behar da, zerbait egin behar da Zuberoarengatik...”. Bada, benetan, hau da aukera ona Zuberoarengatik zerbait egiteko. Jendeak asko agintzen du, baina gero ez da ezer egiten, eta espero dut honekin zerbait egingo dela. Beharrezkoa da eta aukera da demostratzeko denok euskaldunak gara eta bata bestearen beharra dugula. Ez bakarrik Zuberoara joan eta esan: “Ai, zein polita den; ai, zein paisaia politak...”. Lagundu egin behar da, benetan beharra dago.

Ikasleek, ikastolako ikasketak egin eta gero, euskaraz ikasi nahi badute, kilometroak egin behar izaten dituzte, ezta?

Bai. Nahi baduzu euskara gorde eta zerbait egin, sakrifikatu egin behar da, ez da oso erraza. Hango bideak oso txarrak dira...



U.M.

Zuberoan ikasten dute 15 urtera arte eta gero joan behar izaten dute lizeora Baionara. Zuberoan ez da ez lizeorik, ez beste ezer.

Hortaz, Iparralde zeharkatu behar dute bi urterekin ikasten hasi eta 18 urte bitartean...

Bai, hala da.

Zu zeu ere Zuberoako ikastolatan lan egindakoa zara, oker ez banago.

Bai. Hona etorri aurretik egin nuen urtebete baino gutxiago Biarnon. Hura ez da Euskal Herria, baina euskaldun asko dira han eta hasi ginen ikastola zabaltzeko asmoarekin. Ibili ginen atez ate ume bila. Aurkitu genituen hiru ume eta hasi ginen

taberna baten gainean, hamar metro koadrotan-edo. Baina ez genuen beste umerik aurkitzen, baldintzak ez ziren onak eta hiru umerekin ezin genuen ezer egin. Azkenean utzi egin behar izan genuen.

Arrasate eta Iparralde askotan esaten dugu nahiko lotuta daudela. Lagun arteko harremana bada, baina askotan harreman hori ez da nahikoa.

Bai. Kilometroetan hemen izan zen Barkoxeko dantza talde bat. Asmoa zen, eta ez dakit lortuko dugun, senidetasuna egitea: Arrasate-Barkoxe edo Arrasate-Maule edo zerbait. Hangoek behin esan zuten: “Zergatik ez dira etor-

“Iaz hasi ziren otarreak Hegoaldera saltzen, eta esan dute aurten ere saltzen saiatu behar dugula”

“Ikastolek aurten dute 153.000 euroko aurrekontua, eta diru hori nonbait topatu behar da”

“Produktuak dira ikasleen gurasoek egindakoak, guztiak biologikoak; gauza onak, prezio onean”

tzen hango gazteak hona ikastera edo lanera, zertarako joan Bordelera, Tolosara edo Parisera?”. Eta gazte mordoa etorri zen. Ederto pasatu genuen. Baina hori ez da hor geratu behar. Jarraipena behar du. Azken batean, herri bat gara. Eta zela egin bat? Jendea ezagutzen.

Orain, besterik ez bada, otarreak erosten lagundu ahal da. Zela egin behar dira enkarguak?

943 79 20 24 telefonora deitu behar da, lehenbailehen. Nik abisatu egin behar dut ea zenbat ekarri behar dituzten. Azaroaren 30a baino lehen deitu beharra dago esandako telefonora. Eta esan behar da hango jendeak asko eskertuko dizuela, erosten baduzue.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Jili Jili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711767

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 19**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 20**
Corcuera, M. Aranbarri 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 21**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 22**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 23**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 24**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 25**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 meza nagusia 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	San Isidro
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Domeka 12:00 (elebiduna)	

OHARRAK

ERRALDOEN ERAKUSKETA
Arrasateko Kiliki eta Erraldoien Konpartsak 20 urte bete dituela eta, erakusketa jarriko dute Monterronen astelehenetik zapatuta bitartean.

'KUKU'-REN AGUR-AFARIA
Angel Lasagabaster *Kuku*-k dendan lan egiteari utziko dio, eta abenduaren 3an agur-afaria egingo dute Leintzen. Interesatuak *Kuku*-ren dendara jo beharko dute.

BERTSO AFARIA
Hilaren 25ean bertso afaria egingo du Zahar Berrik, Jokin Labaien eta Enaitz Alustiza bertsolariekin, 21:30ean AEDko tabernan. Interesatuak Zahar Berrin (Pablo Uranga) eman beharko dute izena, 5 euro ordainduta.

ARETO FUTBOLA ETA BAZKARIA
Txatxilipurdik areto futbol txapelketa eta bazkaria egingo ditu abenduaren 3an. Eman izena gazte txokoetan, hilaren 30a aurretik.

JOSTAILU TRUKE MERKATUA
Txatxilipurdik jostailuak jasotzeko mahaiak jarriko ditu eguaztenean Kontzeziñon; eta egubakoitzean, Seber Altuben. Biak hala biak 17:00etatik 18:30era bitartean izango dira.

AEDren AGENDA

EGUENEAN 'GRIOT' IKUSKIZUNA AED ETA KULTUR ERROTAREKIN
Hilaren 24an, Jon Arretzek *Griot* ikuskizuna egingo du Monterronen, 19:30ean. Proiektzioak, irakurketak, musika eta dantza.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Herriko hiru preso gose greba mugagabea

Arrasateko hiru presok -Gabriel Urizar, Jose Mari Zabarte eta Luis Mari Azkargorta- hilabete inguru bete zituzten gose greban, espetxeetan bizi baldintzak bete zitezten eskatzeko. Haiei elkartasuna adierazteko, sei lagunek baraualdia egin zuten udaltzeko osoko bilkuren aretoan.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Papelada"



— Badatuz, gabonak eta urteroko papeladak eñ biakoittugu.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 11	2°C
MAXIMOA Egubakoitza, 11	17°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	99,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 9	12°C	7°C	33,1 l/m²
Eguena, 10	13°C	6°C	- l/m²
Egubakoitza, 11	17°C	2°C	- l/m²
Zapatua, 12	10°C	4°C	25,7 l/m²
Domeka, 13	9°C	7°C	12,8 l/m²
Astelehena, 14	12°C	7°C	3,9 l/m²
Martitzena, 15	12°C	8°C	24,4 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Euskal kortsarioak protagonista diren liburua aurkeztuko dizuegu, 'Asteko Gainbegiratu'-n

Aste honetako literaturaren geltokian, Jose Antonio Aspiazu Oñatin bizi den historialariak argitaratu berri duen *Nuevas historias de corsarios vascos* liburua aurkeztu digu. Azpiazuk eskola handia dauka XVI-XVII. mendeak ikertzen eta hainbat alor jorratu ditu dagoeneko. Iaz argitaratu zuen liburuaren osagarria da oraingoan aurkeztu diguna. Iazkoan piraten garairen deskribapena egin zuen; eta bigarren honetan, berriz, euskal kortsario garrantzitsuenen bizi-

penak hartu ditu oinarri. Hor- txe, bada, Gabonetako oparier- tarako proposamen polit bat.


Baina oparierarako beste proposamen batzuk ere aurki- tuko dituzue asteburuko bildu- ma honetan. Batetik, Zuberoa- ko ikastolen aldeko otarrak eskainiko dizkigu Renee Har- bustanek; eta bestetik, eguazte- nero izaten dugun Lorategia gel- tokian, Irene Zenitagoiak Pazko loreak oparitzea proposatuko digu, eta horiek zaintzeko ahol- kuak emango dizkigu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratu. Jose Antonio Aspiazu, historialaria; Renée Harbustan; Lorategia geltokian, pazko lorak berbagai...
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
10:00-12:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Ibili munduan geltokia.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

KALEINKESTA/ Babes ofizialeko 600 etxetan irregularidadiek igerri dau Eusko Jaurlaritzak.



DAVID OTEGI
Langillie



MARIAN SANCHEZ
Langillie



JUAN AIERBE
Langillie



MARI LUZ GALLO
Langillie



AMAIA ARREGI
Erretiraue



PACO ROBLES
Langillie

Seguro pasauko diela hola-
kuek, holako etxe asko
"lagunen" artien banatu
daue-eta. Neuk dakidala ez
da egon inungo kontrolik
eta ez dakit kontrolerako
asmue daukien.

Neuri oso txarto pentsetan
jat hori, eta hori egitten
dauen jentie multetien alde-
kue naz. Hamen jente asko
dau etxie biher dauena, eta
beste batzuk, etxie tokaute,
aprobetxau egitten die.

Neuk uste dot bakotzak
eskubidie euki biherko leu-
kela bere etxekin gure daue-
na egitteko, baiñe hori legez
kanpokue bada... Norberak
jakingo dau bere kontzien-
tziekin ze egitten dauen.

Oso txarto pentsetan jat.
Asko dauz etxe biherrien,
eta beste batzuk aprobete-
txau egitten die. Multak
jarri biher dauela? Neuri
ondo pentsetan jat, eta hola-
kuek gehixeu zainddu.

Etxiok kondiziño batzuekin
emun badaue, bete egin
biher die. Beste batzuk dauz
biher haundixauekin. Mult-
tak? Horren etxe horren
biherrik ez badauko, etxie
biherra daukonai emun.

Ba hori ez dau ondo, baiñe
ez dakit Eusko Jaurlaritzak
ze kontrato klase egingo
dauen. Etxe hori beste asmo
batekin hartu dauenai zuzen-
nien etxie kendu, biherria
daukonai emuteko.

USTEAKUSTE

18 arrazoi

Astlehenean hasiko da
18/98 izenarekin
ezaguna egin den
auzia... Madrilen,
jakina. Non bestela? Garzonen
burugogorkeria muturreraino
eraman dute, eta Euskal
Herriko hainbat elkarte eta
ekimen auziperatuta daude.

90eko hamarkada bukae-
ran, ETAREN su-etenarekin
batera Lizarrako ituna sinatu
zuten hainbat alderdi politi-
kok. Espainiako eskuma
beldurtu egin zen, eta ordura
arteko estrategia aldatzea
erabaki zuen. Ordura arte
zabaldutako mezua honako
hau zen: "Terroristak oso
gutxi dira, gutxiengoa, eta
zapaldu egin behar ditugu".

Baina, Lizarrako itunare-
kin ETA armak uzteko prest
zegoela ikusi zuten, eta Euskal
Herriko erakunde, elkarte eta
herreritarrak zer eskaera
dituzten agerian gelditu
zenez, eskumak estrategia
aldatu behar izan zuen, ez
zitzaiolako hori komeni.
Horregatik diskurtso berria
asmatu zuen: "Euskal Herria,
euskal identitatea eta herri-
gintza bultzatzen duten
taldeak, guztiak, terroristak
dira". Azken finean, eskuma
benetan arduratzen duena ez
da ETA, baizik eta herri
honek bere kabuz aurrera
egiteko daukan gaitasun
izugarria. Hori da edozelan
kendu gura duena.

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK BIOLENTZIAREN KONTRA Oraingo astean, emakumeek
jasaten duten biolentziaren aurrean zenbait erakunderen jardunaren
berri eman dute Arrasaten. Besteak beste, jakinarazi dute egoera horren
diagnosia egin dutela eta orain, biolentzia mota horri eta haren ondo-
rioei aurre egiteko ekintza protokoloa dabilzala antolatzen. Horren
harira, irakurle batek baino gehiagok esan digu pozik hartu dutela albis-
tea, ikusten dutelako biolentzia jasaten duten emakumeen egoera bene-
tan larria dela eta orain arte ez dituztela behar bezala babestu.

ASTEKODATUA

20

**URTE BETE DITU ERRALDOI
ETA KILIKIEN KONPARTSAK**

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien
Konpartsak 20 urte bete ditu.
Hori ospatzeko, astelehenetik
zapatura bitartean konpartsa-
ren gaineko erakusketa jarriko dute
Monterronen. Eta horrez gain,
datorren zapatuan kalejira egin-
go dute erraldoi eta kilikiek.

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



Play long

Luze jokatu behar omen
da bizitzan, hobe esanda,
luzera jokatu behar da.
Badirudi banakako
izaerak banaka jokatzera
eramaten gaituela. Batzuen
ustetan, norbera da babesgune
bakarra, horregatik nahiago
izaten dute beraien buruan
soilik sinestea,
bakardadean lan
egitea. Baina badira
beste asko talde
lanaren emaitza
sinbiotikoan sinisten
dutenak, ez beraien
buruetan sinisten ez
dutelako, baina
badakitelako lau
buruk batek baino
gehiago pentsatzen
dutela. (Hau guztiak, noski, lan
motaren arabera izango da,
lan batzuk ezin baitira taldean
egin).

Talde lanak lana sinpletuko
duen ideiarra eraman bagaitzake
ere, uste hau okerra da, talde
lanak beste baldintza batzuk
eskatzen baititu. Plangintza bat
eskatzen du, non kohesioak
berebiziko rola betetzen duen.
Ideien batuketa, arduren
banaketa... Entzuten jakin behar
da, erabakitakoak onartzen eta

helburu komunen bidea jarrai-
tzen. Taldekide bakoitzaren
interdependentsiak erlazioa
izan behar du. Lanaren banake-
ta eta aipatutako plangintzak
proiektuaren batasuna ezarriko
dute. Ezinezkoa da bakoitzaren
esfortzua bestearenaren sistema
metriko berean neurtzea, baina

**"Asertibitatea
norberak nahi zein
behar duena
egin, esan eta
aurrera
eramaten duenaren
kontzeptua da"**

bakoitzaren lanare-
kin homeostasia
mantentzen dugu;
oreka lortzen da.
Taldekide bakoitzak
lanari ukitu berezia
eskainiko dio, noski,
eta azken emaitza
guztiona izango da.

Asertibitate hitza
da azken egunotan
esku artean izan

dudan hitzetako bat. Asertibita-
tea, norberak nahi zein behar
duena egin, esan eta aurrera
eramaten duenaren kontzeptua
da, hori bai, inoiz besteari
erasotu edo minik eragin gabe.
Asertibitatearen izenean
idatzitako testua da, luzerako
jokoetan nahiago nuelako isilik
ez geratu. Entzun diot, orain ez
asko, bere lan taldeaz hitz
egiten zuen bati, eta ahaztu
zuen berea talde lana zela.
Horrelakoa da bizitza...

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Kepa Martelo

ZUZENTZALEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar
Amaia Mundifano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Añe Berezibar
Iratxe Bengoa

ARGAZKIAK
Mikel Lupiañez

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Erretratuan joan den urtean mendi irteeran esku hartu zuten mendizaleak, Aizkorri inguruan.

MENDIA/ AEDk antolatuta, abenduaren 8an, 9an eta 10ean egingo dute zeharkaldia

'3 haundixek 3 egunetan' egiteko, hasi izena ematen

XABIER URTZELAI

AEDk gertu dauka abenduko zubirako mendi zeharkaldia, 3 haundixek 3 egunetan izeneko. Dagoeneko hainbat urte egin ditu egitasmo horrek, eta aurtengo edizioan esku hartzeko azaroaren 30a baino lehen eman beharko da izena, AEDn bertan.

Aurtengo edizioari dagokionez, ez dago berritasunik, eta behar ere ez. Mendizaleak autobusean eramango dituzte Zaldudoraino (Araba), eta hantxe hasiko dute eguneko (abenduak 8) ibilbidea. Zaldudotik Aizkorriara, eta handik Leintz Gatzagaraino, Elgeako

mendilerroan zehar. Gatzagako Kultur Etxean igaroko dute gaua, eta bigarren egunean paraje eder gehiago izango dituzte: Gatzagatik Anbotora, eta lo egitera Urkiolara. Eta hirugarren etapian, zapatuan, Urkiolatik Gorbeira eta itzultzeko autobusa Muruan. Hala, mendizaleek bi urtean behin egiten duten *Hiru Handiak* zeharkaldi ezaguna egingo dute, baina hiru etapatan (100 km inguru).

ERAMAN BEHARREKOA

Antolatzaileek azpimarratu dute mendizaleek lehenengo eguneko bazkaria eramane beharko dutela, gainontzeko bazkari, afora eta gosariak antolatzaileen ardurapean egongo direlako. Horrekin

batera, linterna (badaezpada ere), lo zakua, esterilla, eta mendian ibiltzeko arropa aproposak eramatea eskatzen dute. Hala ere, antolatzaileek eramango dituzte aldatzeko arropekin betetako motxilak aterpetxe batetik bestera; hala, ibilbidean zehar mendizaleek nahiko izango dute motxila txiki batekin.

IZENEMATEA ETA PREZIOAK

Lehenengo esandako moduan, interesatuek azaroaren 30a baino lehen eman beharko dute izena AEDren egoitzan (943 77 12 28). Prezioei dagokionez, euskara elkarteak 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 45 euro.

LABUR

Mondra Allerruren zelaira, Errugbikoak Mungia, eta Ford Mugarri Iturripen

Joan den astean Zestoaren kontra gertatutakoa (2-1) ahaztu guran joango dira Gordobilen mutilak azkeneko postuan dagoen Allerruren zelaira jokatzera. Etxetik kanpo jokatu ere, aurrera egin gura bada irabazi beharreko norgehiagoka izango da. Ford Mugarri Eskubaloia ere galdu egin zuen joan den astean Elgoibarren kantxan (28-18), eta garaipen gogoz hartuko dute Urola taldea Iturripen. Azkenik, errugbi jokalariek Bizkai aldera egingo dute bihar arratsaldean, Mungia kontra indarrak neurtzera.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

AZAROAK 19, ZAPATUA.	EPAILEAK
09:50: Betraye - Tomahawk.	Fuxxion.
11:00: Fuxxion - Iriztu Taberna.	Tomahawk.
12:00: Dribling - HLB 108.	Iriztu Tab
13:00: Irish Pub - AT Celaya.	HLB 108
15:50: Aurrera Bolie - Arrano Tab.	Pippol
17:00: AC Surcos - Pippol.	Arrano Tab.
18:00: Abokajarro - Saukelu Scre.	AC Surcos
AZAROAK 20, DOMEKA.	EPAILEAK
10:50: Txoponbeixek - THC.	Lasagabaster
12:00: Lasagabaster - Iluntz.	THC
13:00: Billy & The... Berdes Bremen.	Iluntz

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Arrano Taberna.....	6	2
2. Betraye.....	6	2
3. Iriztu.....	6	2
4. AT Celaya.....	6	2
5. Dribling.....	6	2
6. Tomahawk.....	6	2
7. Fuxxion.....	4	2
8. Saukelu Scream.....	3	2
9. Iluntz.....	3	2
10. Billy & The cowboys.....	3	2
11. AC Surcos.....	3	2
12. HLB 108.....	3	2
13. Lasagabaster.....	1	2
14. Abokajarro.....	1	2
15. Pippol.....	1	2
16. Irish Pub Dublin.....	0	2
17. Txoponbeixek.....	0	2
18. Berdes Bremen.....	0	2
19. THC.....	0	2
20. Aurrera Bolie.....	0	2

ARGIEKIN BADA, HOBETO

ZAPATUAN ARGI BARIK JOKATU ZITUZTEN HAINBAT NORGEHIAGOKA

Bigarren jardunaldirako guztia zeukaten gertu antolatzaileek, baina zapatu arratsaldeak aurrera egin ahal Zaldibarren eguzki argi barik geratu ziren, eta pilotalekuko argiak piztu beharrean izan ziren. Baina argirik ez. Argi horiek pizteko etengailua pilotaleku atzean dagoen kaxa batean dago, eta kaxa zabaltzeko giltzarriak gilitza berezia du. Nonbait, aurreko batean gilitza hori bere lekuan entregatzea ahaztu (ez zen antolatzaileen arduragabekeriagatik izan), eta arazoa konpontzeko giltzarriak apurtzen ahalgindu ziren, eta baita lortu ere. Talde batek baino gehiagok protesta egin zuen, euripean jokatzeko erosoa ez bada, argi txikiarekin oraindik eta okerrago. Azken norgehiagokarako, baina, argia jarri ahal izan zuten; apurtutakoa konpondu egin beharko da orain.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Allerru - Mondra

Preferentea. Domekan. 11:30. Lezon.

Mondra - Eibartarrak

Ohorezko gazteak. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.

Euskalduna - Arrasate

Kadeteak. Zapatuan. 11:30. Andoainean.

Mutriku - Arrasate

Infantilak. Domekan. 11:00. Mutrikun.

Ilintxa - Mondra

Emakumeak. Zapatuan. 17:45. Legazpin.

ERRUGBIA

Mungia - Arrasate RT

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Mungian.

Arrasate RT

Gazteak. Zapatuan. 11:00. Garagartzan.

SASKIBALOIA

Mugarri Alkesa Arrasate - Legarzia

Lehen Maila. Domekan. 18:00. Lizarran.

Gros Xake - Mugarri Alkesa Arrasate

Gazteak. Zapatuan. 18:00. Donostian.

Easo A - Mugarri Alkesa Arrasate

Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Donostian.

ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasate - Urola

Lehen Territ. Domekan. 11:30. Iturripen.

Arrasate - Hegialde Auto

Big. Territ. Domekan. 10:00. Iturripen.

Usurbil - Gatz Museoa Jakion


Gazteak Mut. Zapatuan. 17:30. Urnietan.

CD Egia - Gatz Museoa Jakion

Kadet. Mutilak. Domekan. 10:00. Donostian.

Ereintza Agua. - Arrasate

Gazteak. Neska. Zapatuan. 16:30. Oiarzunen.



Liderra hartuko dute Lizarran

Goierrri Verkol taldea mendean hartuta (100-93), Mugarri Alkesa Saskibaloia Taldea Lehenengo Mailako liderra da, joan den astean kontrario zuzena den Auto Escuela Alava taldeak kale egin zuen-eta etxean (84-100 Valsay Ardoiren kontra). Arrasateko taldeak hiru norgehiagoka baino irabazi ez dituen Legarzia Promociones talde nafarraren kontra jokatu du domekan (18:00) Lizarran. Ahal bada, gorabehera gutxiagorekin jokatzeko helburuarekin joango dira. /X.U.

Muru azpiko auzo-bideak ezagutzeko, Mugarriz Mugarri ekimena domekan

IKER BARANDIARAN

AEDK, Leintz Eskola Kirolaren eta Besaideren laguntzarekin, Mugarriz Mugarri ekimena egingo du domekan. Muru azpiko auzo-bideak ezagutzeko irteera egingo dute.


Etzi, domeka egingo dute. 09:30ean egin dute hitzordua Iturripen, eta 13:00etarako bueltan egongo direla aditzera eman digute. Ibilbide motza da, eta aldapa bakarren baten salbuespenarekin, ez dago malda askorik.

Urtean Mugarriz Mugarri izeneko irteera birritan egiten dute. Aurrekoa maiatzean egin zuten, eta honako hau urteko azkena izango da.

ERREGE-BIDEEN ORDEZKOAK

Iturripetik Garagartzarako noranzkoan abiatuta, Kristin-iturribide edo Oleaga bidea jarraituko dute. Handik Gorriko, Iku-tixo eta Telleria baserrien eta Txilibito basoaren ondotik igaroko dira.

Oleaga bidea izen bereko baserria eta Uribarri lotzen zituen burdinbidea zen. Inguruetakoko hildakoak handik eramaten zituzten



Argazkian, Erenuzketa inguruak, ibilaldian ezagutuko dituztenak.

auzoko elizaraino, oso txarto ikusita zegoen-eta horiek errege-bideetatik eramatea.

Garagartzara jo beharrean, Bastergain bidetik abiatuko dira. Handik Udaltxan eta Ugaran bailararen ikuspegi politikak daude. Tontorrean baseliza itxurako Solopoto iturri ederra ikusiko dute. Handik metro gutxira Santiago ermita zegoen. Alboan erra-

tzak, hurrizak eta gorostiak utziko dituzte, eta Aretxabaletako lurretan sartuko dira. Han, Naparrena baserriaren ondoan karobi-zuloa eta iturri bat ikusiko dituzte, besteak beste.

Arrasatera bueltan, Murubiden barrena etorriko dira, Mandoin eta Olandixo atzean utzita, kontrabandistek eta bestelakoek erabiltzen zuten bidetik.

XIX. Jokin Zaitegi sariketan, Harold Pinterren idatziak itzuli beharko dira

I.B.

AEDK eta Elkarlanean argitaletxeak, Kutzaren laguntzarekin, XIX. Jokin Zaitegi sariketa jarri dute abian. Aurtengo Literaturako Nobel saria jaso duen Harold Pinter ingelesaren lan bat itzuli beharko da.

Honako hau laugarren aldia da AEDK eta Elkarlanean argitaletxeak Literaturako Nobel saridun baten idatziak itzultzeko beka ateratzen dutela. 2002an, Hungariako Imre Kertész-en liburu bat itzuli eta *Zoririk* ez argitaratu zuten; 2003an, Hego Afrikako

John Maxwell Coetzeeen *Lotsazuna*; eta iaz beka ez zuen inork eskuratu.

Aurtengo Literaturako Nobel saria Harold Pinter idazleak jaso duela jakin bezain laster jarri dute abian sariketa. Interesatuak *The Lover* antzezlanaren lehenengo orrialdeak euskaratu beharko dituzte, eta egindako lan horren hiru kopia bidali AED elkartearen egoitzara (Pablo Uragana 4, behea, Arrasate) 2005eko abenduaren 31 baino lehen.

ANTZEZLANA ITZULI BEHARKO DA

Hala, lehenengo orrialde horiek dagozkien testua antolatzaileek

jarriko dute esku-hartzaileen esku horiek eskatu ahala. Era berean, Internet bidez ere lortu ahal izango da testua (www.elkarlanean.com/jokinzaitegi).

Epaimahaia honako lagunek osatuko dute: Oskar Arana itzultzaileak, Aizpea Goenaga aktoreak eta Xabier Paya bertsolari eta hizkuntzalariak, hain zuzen ere. Jasotako lanak aztertu ondoren, irabazlea izendatuko dute 2006ko urtarrilaren amaiera baino lehen. Irabazleak 3.000 euroko saria eskuratuko du antzerkilanen bilduma osorik itzultzeko. Liburu hori Elkarlanean-ek kaleratuko du 2006ko abendurako.

LABUR

Eguenean Jon Arretxen 'Griot' ikuskizuna Monterronen, Kultur Errotaren eskutik

Eguenean, hilaren 24an, hitzordua dugu AEDren eta Kultur Errotaren eskutik, Jon Arretxe idazleak ikuskizun berezia eskainiko du Monterrongo kultura etxean. 19:30ean izango da hori.

Arretxek *Griot* ikuskizuna eskainiko du. Emankizun horretan, argazkiak, ilustrazioak, irakurketak, musika eta dantza uztartuko ditu. Horren bitartez, idazleak Afrika Beltzeko gaur egungo errealitatearen berri eman gura du. Emankizuna Arretxek berak idatzi duen izen bereko liburuan oinarrituta dago (2004an kaleratu zuen Elkarlanean argitaletxeak). Izan ere, Arretxe Afrikan izan zen 2004an, eta txundituta etorri zen handik.

Besteak beste, idazleak bidai hartan zehar egindako ehunka argazki eta Cristina Fernandez marrazkilarik gasteiztarraren hainbat ilustrazio proiektatuko dituzte emanaldian, Burkina Fasoko Aisha Kone grioten dantza ikusgarriekin eta Afrika Beltzeko musikarekin lagunduta.

Arrasateko Gloria eta Mila Carballo ahizpen margolanak ikusgai daude Harresi aretoan

Joan den aspaldian, ia hilero margolan erakusketak egiten dituzte Harresi aretoan. Hala, azaroan Arrasateko Gloria eta Mila Carballo ahizpen margolanak daude ikusgai. Hilaren 25era arte iraungo du erakusketa horrek, eta astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik.

Bi ahizpak Arrasatekoak dira. Mila orain dela 18 bat urte hasi zen margotzen. Gloria, berriz, orain dela 10 bat urte. Mila Hendaian bizi da, eta lan gehienetan itsasoko paisaiak margotu ditu. Milaren lan guztiak, aldiz, olioak dira, eta klasiko samarrak dira. Milak hainbat erakusketa egin ditu Donostia aldean.

Gloria Monterrongo margo ikastaroan ibili zen 4 bat urtean, eta lehenengo aldia da halako erakusketa egiten duena. Gloriak olioak eta akrilikoak batu ditu. Paisaiak eta loreak margotu ditu, batez ere. Baina baditu, baita ere, abstraktuak diren lanak. Bien artean 55 bat lan batu dituzte.



Montek Udalari eman dio margolan saritua

Astelehen iluntzean, Monte tabernako arduradunek Reyes bilbotarraren margolan bat eman zioten Arrasateko alkate Inazio Lakuntzari. Margolan horren jatorria ezagutzeko atzera egin behar da, San Juanetara. Arrasateko Margo Taldeak aire libreko margo lehiaketa antolatu zuen, eta Udala, Tamayo eta Monte taberna izan ziren lehiaketaren laguntzaile nagusienak. Hortaz, lehiaketan lehenengo saria jaso zuen margolana Udalak hartu zuen; bigarrena jaso zuena, Tamayok; eta hirugarrena, Montek. Kontua da Monteko arduradunek erabaki zutela margolana Udalari ematea, eta hala egin dute. /I.B.


MODAYANG
Erropa, zapatak eta osagarriak
Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.
Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE


ileapaindegia
peluqueria
Gorka
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

BOTEPRONTUEN

Arantza Arantzabal

RESUSTA

XABIER URTZELAI

Resusta dendie, Karrikirri moduen ezagunaue, oin dala hamabost egun zabaldu daue barriro be, barritu egin daue-eta goititik behera. Abogau lanak alde batera itxi, eta buru-belarri hasi da Arantza lanien, familixako dendan. Txukun itxi daue dendie.

Zenbat urte dauko Resustak?

Mordue, XIX. mendekue da eta. Familixako dendie da; izen be, 1850. urte inguruen zabaldu euen Bartoloma Karrikirri, eta ordutik hona hainbat jeneraziño pasau die dendatik.

Herriko denda batzuk atiek zerrauko daue, eta zeuok, barriz, dana barritu.

Neuri pena haundixe emungo leuskit dendie zerretie, familixakue dalako. Abogau moduen jarraiketako negozio propiue ipiñi biher da, eta inguruko lagunek ez daue suerte onik euki; gatxa da abogau moduen aurrera egittie, eta, dendako girue betidanik gustau izen jatenez, aurrera egittie dezididu geuen.

Ze dauketzue Resustan?

Hau lehenau burdindegixe zan, eta poliki-poliki ama arduratu zan gauza barrixek ekartiez. Eta oin jente gaztiendako gauzak ekarten arduraketan naz, gauza berezixek, gaiñera. Hamen daukou zartakine, mueblik, kristalezko irudixek, lanparak... Etxe baterako edozer gauza.

Eta saltzen dozue gehixen?

Egixe esateko, danetik saltzen dou: ontzixetatik hasi eta etxerako beste edozer gauzara arte. Hala be, erregaluek eroatera be etorren da jente asko.

Komertzio txikiñek ze egin biher daue herritarrak erakarteko?

Neuk pentsetan dot gauza asko egitten diela: promozioñuek, dendak txukun euki, klientie ondo atendidu... Adibidez, hortxe dabitx bai Ibai Artekuek eta baitte beste batzuk be horretan lanien. Baiñe uste dot Udalak be ipiñi biherko leukela bere partetik, iñok ez



X.U.

“Penie da herriko denda batzuk atiek ixtie; neuri, behintzet, pena haundixe emungo leuskit”

dauelako gure herriko komertzioek desagerketie.

Badauketzu Udalandako proposamenen bat?

Jente gaztie, adibidez, aste bukaeretan kanpora jueten da, eta herrixen ez da giro haundirik egoten. Neuk uste dot herriko komertzioetan danetik topau geikela, denda haundixetan baiño trato hobiekin, gaiñera. Baiñe Udala ahaleginddu egin biherko leukela aste bukaeretan herrixen zeozer egitten, girue egon dain; holan, jentie ez litzake hiriburueta horrenbeste juengo.

Ze da zuon laneko gauza txarrena?

Ordutegixe.

“Ama hasi zan gauza barrixek ekarten, eta oin ahaleginketan naz gaztiendako produktuek ekarten”

Eta onena?

Egun dana pasetan doule jentiekien tratuen.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Debagoienari?

Aste bukaeran herrixetako giruek behera ez egittie, eta hondartzie be bai.

Ze falta jatxu zeuri?

Neuretako denpora luziaue.

Eta ze dauketzu sobran?

Batzuetan, jenixue.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Tal como eramos / Lituma en los Andes / Bruce Springsteen.

Bukaketako, kapritxo bat?

Galapagos uhartietara biajtie egittie.


NIREBIDAIAHURA / Iban Gonzalez

Ekuadorrer / 2005eko udan.

Ekuadorko Amazonian jarraituko dugu Ibanekin eta Anarekin. “Goizetan sekulako eguraldia egiten zuen, ederra, baina eguerdirako iluntzen hasi eta arratsaldean ur zaparrada galantak botatzen zituen; eta egunero horrela; halaxe dute gero oihan ederra”. Amazonian zuhaitzen gainean dau den etxoletan egon ziren: “Sekulako zuhaitzak ziren, ehun metrokoak, eta goialdean egurrezko etxolak zituzten, gaua igarotzeko prestatuta. Goraino igo, oihanera begiratu, eta itsasora begira egongo bagina bezala; berde koloreko itsasoa, baina”.


Lau egun egin zituzten Amazonian, emaztearen lehengusinarene etxean: “Denetik egin genuen: 4x4 autoen rallya ikusi, parranda egin... Gainera, tiro egiten ere ibili nintzen. Anaren lehengusinarene gizona militarra da, eta esan nion gustura egingo nuela tiro, zer den jakiteko. Esan eta egin; oihanera joan, eta han ibili ginen hainbat pistolarekin (Smith eta A-H errusiarrak) tiroka. Oso pistola ezberdinak dira, eta tiroa egiterakoan ere alde handia zegoen; a zelako zarata, gainera!”. Oihanera bidean izan zuten anekdotarik: “Praketan gora egiten duten txindurriekin egin genuen topo. Ni eurei begira geratu nintzen, galantak zirelako, eta besteak aurrera egin zuen, ezer esan barik; minutu gutxira gustura egin zuen barre neure kontura. Kontua da konturatu orduko txindurri mordoa nituela hanketan gora, eta ikustekoa zen zenbaterainoko mina egiten zuten. Gainera, ondoan zebilen bikote bat, eta eurak ere konturatu zirenerako alaba txikia negar batean zebilen; ez zen brometako kontua”.

Amazoniatik itzuli eta beste hainbat egun egin zituzten Quiton, familiakoekin. Eta Ekuadorrekin eta hantxe eza gututako jendearekin txundituta itzuli zen Iban. Datorren urteko oporraldiaren gainean galdetuta, dagoeneko hara joateko aurreratzen dabilela esan digu Ibanek.



“Oihanean ibili ginen hainbat pistolarekin tiro egiten”

XABIER URTZELAI



Txerria jateko modu berezia dute Ekuadorren.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

ARRASATEKO MUGIKORTASUN PLAN IRAUNKORRA
jendaurrean dago (Ingurumen Saila) 2005eko abenduaren 14ra arte. Nahi duenak dokumentua azter dezake eta bidezkoak diren alegazioak aurkeztu. Aipaturiko epea amaitzean, alegaziorik egon ezean, behin betiko onartutzat joko da.


Zer da ARRASATEKO MUGIKORTASUN PLAN IRAUNKORRA?
Datorren 6 urteetarako Arrasaten mugikortasun egitasmoak definitzen ditu. Mugikortasun eredu berri bat lantzen du.

Jorratu diren eremuak:
Garraio publikoa
Oinarrizko azpiegiturak eta hirigintza
Banaketa eta bide sarearen erabilpena
Aparkalekua
Errepideko segurtasuna
Oinezkoak
Bizikletak

Udaleko webgunean ikusgai:
www.arrasate-mondragon.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

AGENDA 21



DENON ARTEAN BATU, BAINA ERRETRATUA BI ANAIEI

Argazkikoak Gorka eta Ander Llodio dira, eta Mari Karmenek esan digu azaro hasieran hartu zituztela onddo horiek Araba aldean. Ez du lekua gehiago zehaztu, eta badaezpada ere, guk ez dugu horren gainean galdera gehiago egin. Esan digunez, onddo handienak 830 gramo pisatzen zuen. Eta, erretraturako modelo Gorka eta Ander aukeratu bazituzten ere, eurek bakarrik ez zituzten onddo horiek batu, hainbat lagun ibili ziren-eta horretan. Dagoeneko ez da onddo askorik geratuko basoan, baina ez da izango euririk egin ez duelako.



AURTEN ERE, IBARREKO HAINBAT PRESOK GURUTZATU DUTE DONOSTIAN HELMUGA

Aurtengo Behobia-Donostia edizioan Portaloira topaguneak hartu du presoen eta iheslarien izenean korrika egiteko ardura, eta joan den domekan 24 lagun ibili ziren horretan. Korrika ibili ziren ibarreko lagunekin batera, beste horrenbeste ibili ziren prestaketa lanetan; besteak beste, helmuga baino kilometro batzuk lehenago korrikalariei pankartekin itxaroten. Izan ere, Arrasatekoren

bati erretratu galanta atera zioten pankarta eskuan zuela, baina ez pentsa hogeita bat kilometroak egin zituztela horrela; meritua galanta, bestela! Korrika egin eta gero, eguerdian sagardotegira joan ziren guztiak, ederto bazkaldu eta kupeletan gordetzen dutena dastatzera. Egia esateko, batek baino gehiagok marka galanta egin zuen (korrika); eta gainontzekoak, hasi lehenago entrenatzen!



GAZTAINA JANA BEDOÑABEN; NEUREA EDERRA, EA ZEURE GAZTAINA HOBEA DEN

Joan den eguaztenean egin zuten Bedoñabe eskolan gatzaina jana. Eta egun hartan, patioan bildu eta gatzainak erre eta jan zituzten, kanpoan euriak atsedetik hartzen ez zuen bitartean. Urteroko ekintza bihurtu da gatzaina jana. Hasteko eta behin, ikasgelan lantzen dute gaia: gatzainak zer diren, nondik datozen, eta horien inguruko hainbat datu eta

bitxikeria ikasten dituzte, eta, horren ondoren, prestatu egiten dituzte. Eguazten goizeko saioan, neska-mutikoei gatzainak danbolinean nola erretzen diren ikasi zuten; 2 eta 5 urteko 180 haur baino gehiago bildu ziren eskolako patioan. Gatzainei buruzko kantuak abestu eta bapo jan zuten. Eta erretratuan ikusten denez, batzuek kukurutxo guztietako gatzainak probatu zituzten.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70



www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/joseba	/gutzieder	/ohiak	/pando
/arregi	/BZ-sistemas	/korozabaleta	/okipark	/udalatx
/atai	/gallastegi	/multiopicas	/vitoria	/udalaitz
/azkarate	/garaia			

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



ELKARRIZKETA

MIKEL GOROSABEL 'NORTON'/MUSIKARIA

"Hainbat musika estilo landu gura nituen, ez dut aurreiritzirik izan"

IKER BARANDIARAN

Mikel Gorosabel Norton ezaguna da herrian AEK-ko irakasle izan zelako, eta EH Sukarra taldeko abeslaria ere badelako. Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan Nortonklub izeneko proiektua aurkeztuko du.

Aspaldian Bartzelona aldean ibili zara eta orain dela gutxi Bilbora jo duzu. Zer moduz?

Oso ondo. Bartzelona hiri handia da, eta aukera handiak ematen ditu. Horrez gain, hiriek anonimotasuna ematen dute.

Gaurko kontzertuan Egus izango duzu alboan. Harreman estua egin duzue Bartzelonan?

Bai, Bartzelonara jo nuenean deitu nion, Arrasaten egin nuen sasoiatik ezagutzen nuelako. Harreman estua daukagu, eta elkarrekin asko ikasi dugu. Hark elektronikan sakondu du, baina aspaldian gitarra berreskuratzen dabil. Nik beste modu baten konposatzen ditut abestiak.

Zergatik Nortonklub?

Bakarkako proiektua da. Bartzelonara joan nintzenean (orain dela 2 urte) asmo hori neukan. Klub da musika egiteko gune irekia, estiloari erreparatu barik kantu berriak plazaratzeko.


Musika estilo asko tartekatu dituzu diskoan: pop-rocka, psikodelia, hard-rocka...

Bai, egia da estilo horiek landu ditudala, eta ukitu elektroniko gutxi batzuk ere sartu ditut. Hainbat arlo landu gura nituen, eta ez dut aurreiritzirik izan.

Hitzak hirian inspiratuta idatzi dituzu, eta ez dira oso kritikoak...

Hirian inspirazio handia lortu dut eta barruko kantuak dira, pertsonalagoak. Maitasuna, esperantza, behartsu bati eskaintakoa... *Libre* kantua agian gogorragoa da: borrokatu beharra.

Diskoa familian grabatu duzula esan dezakegu. Aintzirak eta Aitorrek esku hartu



BARNE RECORDS

"Badut gogoa taula gainean maiztasun handiagorekin jotzeko. Proiektu honekin lortuko dut"

dute, hitzak Asier Serranok egin ditu...

Bai, aspalditik nengoen Aintzirarekin harremanetan zerbait egiteko. Eta bateria bila nabilean, Aitor anaia prest agertu zen. Horrez gain, musika idazteko erraztasuna daukat, baina ez horrenbestekoa hitzak egiteko, eta Serrano beti egoten da laguntzeko prest. Zuzenekoetan Aintzirak gitarra jotzen du, Mikel

"EH Sukarra taldeko lagunak irrikan daude zazpigarren diskoa grabatzeko, laster hasiko gara"

Irisarrik baxua, Sergiok bateria eta nik gitarra jo eta abestu.

Barne diskoetxea sortu duzue. Zergatik?

Gurago genuen produktua guk kudatu, nahiz eta lan handia eman. Baditut kaleratzeko beste kantu mordoa, eta EH Sukarrak laster zazpigarren diskoa grabatuko du. EH Sukarrak gutxi jotzen du, eta badut gogoa taula gainean sarriago jotzeko.

Santa Zeziliaz gain, musikaren gainekeo beste hitzordu batzuk

I.B.

Santa Zezilia eguna ospatzeko, Arrasateko Musika Eskolak hainbat kontzertu egingo ditu. Horrez gain, bihar, zapatua, Ken 7 taldeak emanaldi akustikoa egingo du, eta beste hitzordu batzuk ere badaude.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek emanaldia egingo dute eskolan, 18:30ean. Ikasle ugari esku hartuko du. Bihar, zapatua, berriz, Eskolako Bandak kalejira egingo du. 19:00etarako egin dute hitzordua, eta ibilbidean bi pieza joko dituzte: Luis Emparanen *Jostailu* eta Txomin Muxikaren

Elgoibarko kaleetatik, hain zuzen ere. Iker Olazabal arduratuko da Bandako zuzendari lanaz.

KEN 7, AMAIA UDAL ANTZOKIAN

Bihar, zapatua, Ken 7 taldeak emanaldi akustikoa egingo du Amaia Udal Antzokian. Gernikako talde horrek arrakasta handia lortu du aspaldian, eta pop-rock eta power-rock musika estiloak jorratzen ditu.

Zapatuan beste bi hitzordu izango dira: Quadrophonicos eta Los Cretinos taldeek kontzertua egingo dute Iluntz tabernan, 17:00etan. Eta 23:00etan, Obligaciones eta Soulbreaker Company taldeak, 3.60 aretoan.

Kiliki eta erraldoiek 20. urteurrena ospatuko dute

I.B.

Arrasateko Kiliki eta Erraldioen Konpartsak 20. urteurrena bete du. Arrazoi horregatik, astelehentik zapatara erakusketak jarriko dute Monterronen, eta hilaren 26an kalejira egingo dute herrian.

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa ospakizunetan dabil. 20 urte bete dituzte taldea sortu zutenetik. Hori ospatzeko, erakusketak jarriko dute Monterronen datorren astean. Erraldoiak eta kilikiak han egongo dira, eta argazkien bitartez bi hamarkada hauetako ibilbidea erakutsiko dute. Horrez gain, konpartsaren gainekeo ikus-entzunezkoa ere

prestatu dute. Horrekin batera, taldeari lagundu gura dionak sargai jarri dituzten elastikoak eskura ditzake.

Datorren zapatuan, 26an, kalejira egingo dute eguerdian.

LAGUN GEHIAGO BEHAR DITUZTE

Orain dela pare bat urte, konpartsak deialdia egin zuen laguntzarik jaso ez zuten desagertu egingo zelako. Deialdiak zelanbait izan zuen erantzuna, eta lagun gehiago batu ziren taldera, baina ez zen nahikoa izan. "Taldea 30 bat lagun behar ditugu, eta gaur egun 22 gaude. Berdin digu gizonezkoak edo emakumezkoak diren, taldeko atek zabalik daude", azpimarratu zuten. Hori da euren eskaera nagusia.



smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLFOIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

<p>Himnoak Eibar EIBAR Athletic Club BILBAO Osasuna OSASUNA Real REAL</p> <p>Pop-Rock Aitormena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolarri (Kortatu) AIZKO Amore amore (Kariadako bantoi) AMORE Bi Minutuero (Hertzainak) BIMINU Dub manifest (Famin Maguruza) DUB Egunero (Hertzainak) EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKARR Elos dion mierda, nosotros amen (La Polka) ELLOS Enamorado de la muerte (Ena) ENAMO Etorkizuna (Ezaki) ETORKI Ezer ez da betiko (Ken7) EZER Gora Herria (Nagu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken7) HAIZEA Hegal egiten (Itzi) HEGAL Ikusi (Delium Tremens) IKUSI Ilargia (Ken7) KEN Inpernuen eta joko (Gatibu) INPER Jokin Urain Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Urte) KAIXO Lau Teilat (Itzi) ITOIZLAU Laztana (Laztan) LAZTA Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA Loretxoa (Ezaki) LORE Marea Gora (Itzi) MAREA Musturrek sartundu (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA No time for love (Hertzainak) NOTIME Salve (La Polka) SALVE Sari Sari (Kortatu) SARRI</p>	<p>Sorginen leizean (Ezaki) SORGIN Txatxo (Zarama) TXATXO1 Txus (La Polka) TXUS</p> <p>Trikitixa Bexamela ta pastela (Maizta ta biar) BEXAMELA Bokespok (Kapa Junkera) BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Kapia) HIK Itsas ontzi baten (Kaxiano) ITSAS Kupela (Egale eta Larrañaga) KUPELA Mila galdera (Alatz/Maiden) MILAI Nirekin (Gozategi) GOZATEGI Ny Hirahira (Kapa Junkera) HIRA Txanpon baten truke (Alatz/Maiden) TXANPON</p> <p>Folk Arratsalde honetan (Sorotan Bala) SOROTAN Bai euskarari (Paraboa) BAI Bakezaleak (Anje Duhalde) BAKE Bizkaia Maite (Bente Lertxundi) BIZKAIA</p>	<p>Eperrek (Anje Duhalde) EPERRAK Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) EUSKAL Euskaldun berraren balada (Oskorri) EUSKALDUN Ez da posible (Raper Ondo) POSIBLE Furra Furra (Oskorri) FURRA Galziara noa (Oskorri) GALZIARA Gernikako Arbola (Gortzal Mendibil) GERNIKAI Haika Mutil (Mikel Laboa) HAIKA Izarren hautsa (Xabier Lete) IZARREN Lepoan hartu ta (Paraboa/Pelo) LEPOAN Marinelaren zai (Sorotan Bala) MARINE Nere herriko neska maite (B.Lertxundi) NERE Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) NON Oil Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) OIAMA Tirauki (Oskorri) TIRA Txabamatzalinetan (Mikel Urdangarin) TXATXA Txonia txori (Mikel Laboa) TXORIA Zaindu maite duzun hori (Raper Ondo) ZAINDU</p>
---	---	---	--

7505

zenbakira

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

JOKOAK (4 sms)

BOINK	NEUTRON2	RALLYDELUXE
FUTVOLEY	NOR	SOBALL

SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA

Irrintzia | IRRINTZI
Txalaparta | TXALALA

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintza dagoen produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri. Bertan jaso duzu beharrezko duzun informazioa guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko beharrezkoa da GPRS sistema aktibaturik izatea. GPRS sistema aktibatuko jar zaituzte zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan eta Klabinarekin batera ordaindu beharria duzu. Kasu guztietan daude eta GPRS sisteman alta ematea dion dira. * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. ** Vodafone: deitu 123+re. *** Movistar: deitu 808+re.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezaketen maila baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" garenako kalifikazioa pertsona nagusien babesean.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES

EZETZASMATU



'ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO HERRIA' LIBURUA

Non egon zen argazkian ikusten duzuen zerrategi hori?
Arrastoa: 40ko hamarkadako argazkia da.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Valdepeñas erreserbako ardo beltza viña Albati

75 cl-ko botila

2,85€ 474 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

XABIER UGARTErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Xabier!

Galderen erantzun zuzena:

Zurgin kantoian.

ERRETRATUZAHARRA

Altar de Vanidades musika taldea

Joan den hamarkadari begiratu-ko diogu oraingo asteko argazkiaren bitartez, gure berriemai-leak kontatu digunez 1989-1990. urte ingurukoa da-eta.

Arrasaten sortu zen Altar de Vanidades musika taldea dugu protagonista, Arrasatek betidanik eman izan duen musika talde ugarietako bat.

Argazkiak erakusten duen moduan, lau lagunek osatu zuten Altar de Vanidades, ezkerretik hasita: Jose Mari Agirrebeitia *Txema* (gitarra-jolea eta abeslaria), *Txanana* (bateria-jolea), Iban San Jose *Txefo* (gitarra-jole nagusia) eta Jon Ramila *Joni* (baxu-jolea).

Guk Iban San Jose *Txefo* izan dugu berba lagun. Hark kontatu digunez, Gipuzkoa etorbideko pabilioi industrialetan zuten lokala, Egido tailerraren ondoan. Beste bi talderekin partekatzen zuten lokal hura. Eta eurek egokitu behar izan zuten.

Halaber, kontatu digu rock motako musika jotzen zutela Altar de Vanida-



des taldean, heavy estilokoa. Bestelakoen artean, Metallica, Krokus eta Iron Maiden izan zituztela inspirazio iturri. Sei bat kantu sortu zituztela ere jakinarazi digu eta haiekin maketa bat grabatu zutela. *Condenado de mi* eta *La senda del mono* dira kantuetako bi. *Txefok* dio "sasoi interesgarria" izan

zela hura; berari, behintzat, musikari moduan heltzen lagundu egin ziola.

Hiru bat urtez jardun zuen taldeak musika egiten (entseatzen, bereziki). Aretxabaletan kontzertu bat jo zuten. Eta aurrera begira, kontzertu gehiago jotzeko aukera ere izan zuten. Edozelan ere, *Txefok* taldea utzi egin zuen

eta gainerako hiru taldekideek jarraitu egin zuten, beste talde batean. Altar izena ipini zioten hari.

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: Iban San Jose *Txefo*.
Urtea: 1989-1990.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



ARANZABAL S. COOP.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Maitena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia
Lekuz aldatu gara!

Debagoiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel.: 943 79 11 35 - Faxe: 943 77 31 20



Iturgintza • Berogailuak • Gasa • Bainugelak

Kale txiki 9 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a

402. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79-86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Eztabaida luzea sortu zuten mozio bik ohiko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean, azaroak 14. Gai asko zituzten onartzeko, baina eztabaidarik luzeenak mozioek eragin zituzten: bata pobrezia gainerako eta bestea, kartzeletan gertatutako heriotzak, Jose Angel Altzugurenena tartean.

Osoko bilkura luzea egin zuten astelehenean, azaroak 14. Hamabi gaietatik bi mozioak izan ziren, eta horietatik sortu zituzten eztabaidarik luzeenak.

POBREZIA EZTABAIDAGAI

Pobrezia gainerako mozioa Aralar alderdiak aurkeztu zuen. Estatuko gastu militarretan EAERI dagokiona eta azken gerrateak finantzatzeko jarritako diru kopuruak aurkeztu zituen. Moxioak eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari gastu militarra ordaintzeko erabiltzen duen dirua pobrezia ezabatzeke erabil dezala.

Gainerako alderdiak ez ziren alde azaldu. EAJko Jesus Mari Herrastiren esanetan, proposamen demagogikoa zen: "Pobrezia oso gai serioa da horrelako mozioek nahasteko", gaineratu zuen. PPko Silvia Camporrorén usteetan, ostera, dirua beste arlo askotan alferrik galtzen da: Ertzaintza, euskarendako ematen diren dirulaguntzak... Eta horiek guztiak ez zituen aipatzen Aralarren mozioak. Bestalde, Arritxu Oliben alkateak bigarren proposamen bat aurkeztu zuen. Dirulaguntzak zela eman garrantzitsua



EAJko zinegotzi bat eta Ezker Batukoa izan ezik gainerako guztiak elkartu ziren.

dela aipatu zuen eta hiru irizpide sartzea proposatu. Moxioa ez zuten onartu eta Arritxuren proposamena aztertzekotan gertatu ziren.

ESPETXEETAKO EGOERA

Bigarren mozioa espetxeetako egoeraren gainerako izan zen, eta EAJk eta Aralarrek adostuta eraman zuten. Azken hilabeteotan gertatutako heriotzak aipatu zituzten eta hainbat eskaera egin: heriotzen aurrean atsekabea agertu eta doluminak helarazi senideei; heriotzak argitzeko eskatu; heriotzak saihestea politikarien ardura dela gogorarazi; eta dispartzio politika bukatzeko eska-

tu. PSOE ez zen ados agertu hainbat punturekin; hala ere, onartu egin zuten, Aralarren eta EAJren aldeko botoekin.

BAKE EPAILEA, IGOR BASTARDO

Beste era bateko gaiak ere landu zituen udalbatzarrak. Hurrengo lau urteetan bake epaile izango dena proposatu zioten Euskadiko Auzitegi Nagusiari: Igor Bastardo. Hura izan da azken lau urteotan ere bake epaile. Haren ordekoa Zorione Jausoro izatea proposatu zuten. Bestalde, 2006ko taxien tarifak onartu zituzten, eta Udalak Aozaratzan dituen 600 mila metro koadro errentan emateko baldintzak jarri zituzten.

Aretxabaletako bi gizon esanguratsu hil dira astean

M.A.

Bernabe Makazagak astelehenean eta Aita Migel Lete marianistak martitzenean, biek esan digute agur. Nork ez zituen ezagutzen bata zein bestea: Bernabe aretxabaletar peto-pettoa zelako, edonori laguntzeko beti gertu; eta Aita Migel 22 urte egin zituelako irakasle Almen ikastetxean.

Han eta hemen ibiltzen zen Bernabe, honi eta hari lagundu guran: egunkaria jaso eta eraman bati, gurgildun aulkiarekin lagundu besteari, edo ospitalean gaixo zeuden aretxabaletarrak ikustera joan. Halakoxea zen Bernabe eta ARETXAGAZETAko kazetariok ere sarri jotzen genuen harengana erretratu zaharren bat eskatzen edo kontu zaharren gainera berba egiteko esatera. Hain zuzen GOITBk aurtengo denboraldian hasi berri duen elkarrizketa saioetan ere izan zen Berna-

be, eta *Motzean* saioa ikusi barik joan zaigu. Aretxabaletarrok, baina, laster izango dugu bere kontuekin gozatzeko aukera, hamar minutuz bakarrik bada ere.

ERRETIRATU OSTEAN KOLONBIARA

Aita Migel Lete marianista Arkarazo auzoko Mendibitzu baserrian jaio zen. 22 urte egin zituen Almen ikastetxean irakasle lanean eta ibarreko neska-mutil askok ezagutzen zuten. Erretiratu ostean Kolonbiara bidaltzea eskatu zuen, eta han eman zituen azken 11 urteak; hil ere hantxe egin da. Orain dela 5 urte Mendibitzura etorri zenean osasun arazotxo batzuekin ibili zen baina oso argi zeukan Aita Migelek zerbait egiteko gauza zen, bitartean Kolonbian jarraituko zuela.

Senideek oraindik ez dute erabaki noiz egingo duten Aita Migelen omenezko meza; gainera, hain ezaguna izanik, Arkarazon egin beharrean Aretxabaletako parrokiaren egitea pentsatzen dabilza.

LABUR

Minbiziaren gainerako berbaldia egingo du Kattalin elkarteak egunean, azaroak 24

Bularreko minbizia lehenbailehen antzemateak daukan garrantziaren gainera egingo dute berba Kattalin elkarteak kideek. Emakume guztiendako zabalduko dituzte ateak, baina batez ere 50 eta 64 urte bitartekoei dago zuzendua berbaldia. Kattalin elkarteak bularreko eta ginekologiako minbiziak eragindako emakumeek osatutakoa da. Iralabarri plazako 13. atartearen dagoen kultur etxean egingo dute berbaldia, azaroaren 24an, 18:00etan.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 19
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

DOMEKA, 20
ITURRALDE, Belorrieta 1. . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Basoboa 943 77 09 81

Cuskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzaila 943 71 18 62

Industrialdea 943 79 62 80

Instituitua 943 79 79 00

Kirri etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Gazteria saila 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI 943 79 57 40

KZGunea 934 79 94 44

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murruko ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 71 19 59

Otatora 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Basabeazpi ikastola 943 71 21 18

Taxi geltokia 943 77 12 64

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udaltzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Delak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaingoa 943 79 71 99

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdiak 943 46 11 11

Suhiltzailak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00, 12:00

Zapatuetan: 19:30

Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA

Domeketan: 12:30.

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO

Domeketan: 11:30.

Organoa gertu Santa Zezilia eguna ospatzeko domekan

M.A.

Santa Zezilia eguna ospatuko dute musikariek martitzenean, azaroak 22, baina Aretxabaleta Abesbatzak domekan egingo du ospakizuna. Bide batez, aurten 100 urte bete dituen eta konpondu berri duten organoa inauguratzeko eguna izango da. Herritar guztiak daude gonbidatuta meza nagusira.

Ospakizun berezia dauka Aretxabaleta Abesbatzak domekan, Santa Zezilia eguna. 100 urte dituen organo guztiz berritua erabiliko du, gainera.

MEZA NAGUSIA ABESTERA
Aretxabaleta Abesbatza 25. urteurrena ospatzen dabil aurten, eta domekako ospakizuna berezia izango da. Casimirren aintza eta

Gounod-en santusa abestuko dituzte abesbatzako kideek domekako meza nagusian, 12:00etan. Organo jolea, ostera, Xabier San Miguel izango da. Hain zuzen, irailetik hona konpontzen egon diren organo guztiz berritua joko du Xabierrek.

Abenduan beste bi kontzertu emango dituzte organoarekin: 16an, Mari Karmen Azpeitia organo jolea etorriko da, eta 30ean, Jose Luis Franzesena organo jolearekin batera abesbatzak abestuko du.

MUSIKA ESKOLAKO OSPAKIZUNA
Leizarra Musika Eskolako musikariek ere ospatuko dute Santa Zezilia eguna. Hala, martitzenean, azaroak 22, musika eskolako irakasleek kalejira egingo dute herrian. 11:45ean udaletxetik abiatuko dira, 12:00etan Basabeazpi ikastolan izango dira eta 12:30ean Kurtzebarri eskolan.



ARTXIBOA

Musika eskolako irakasleek kalejira egingo dute martitzenean Santa Zeziliaren omenez.

LABUR

Koldo Ameztoik ipuin kontaketa berezia eskainiko du egunean, udaletxe zaharrean

Datorren egunean, azaroak 24, Koldo Ameztoi ipuin kontalaria etorriko da herrira Loramendi EEk gonbidatuta. Ipuin kontaketa berezia eskainiko du, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Bestalde, datorren abenduaren 18an, BECen egingo duten Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak dituzte salgai Loramendi EEn. Txapelketarako sarrera 25 euro da, bazkaria 18 euro eta autobusa 12 euro. Lehenbailehen pasatu Loramendi EEtik.



Seigarren mailakoak Murtzia aldean

Kurtzebarri eskolako hainbat ikasle bidaian izan dira egunotan. Espainiako autonomia erkidegoak ezagutzeko bidaiek egiten dituzte urtero, eta aurten Murtzia ezagutzera joan dira Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak. Kurtzebarriko ikasleekin batera Soriako eta Badajozko talde bana egon dira, eta irteerak, bisitak eta kirola eginez ederto pasatu dute. /M.A.

Jauregi Okindegia

Otatora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otatora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKIGRAF
inprimategia

1979urtetik
zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

Mendi irteera eta bazkaria eginda hasiko du Murruxok Mendi Astea

M.A.

Mendi Astea antolatu du Murruxok Mendizale Elkartek azaroaren 27tik 30era bitartean. Mendi irteera eta babarrun jana eginda emango dio hasiera domekan, eta ondoren, ikus-entzunezko emanaldiak eskainiko ditu Kurtzebarri eskolan.

Kalean dago Murruxok Mendizale Elkartek antolatu duen Mendi Asteko egitaraua: mendi irteera, bazkaria eta emanaldiak aretxabaletarren eskutik.

BABARRUN JANA, ONDO HASTEKO

"Egia da orain arte ez dugula egin izan mendi irteera eta bazkaririk Mendi Astea, baina aurtentzen halaxe hastea bururatu zaigu. Proba egingo dugu, ea zela ateratzen zaigun", dio Murruxok MEko presidente Inaki San Miguelek. Azaroaren 27an izango da hori, domeka, baina babarrun janera joan gura dutenek aurrez eman beharko dute izena -azaroaren 22a baino lehen- Arlutz edo Urbaltz tabernetan.

Azaroaren 28tik 30era bitartean, bestalde, ikus-entzunezko emanaldiak eskainiko ditu Murruxok Kurtzebarri eskolan, 19:00etan. Hiru emanaldien protagonista aretxabaletarrak izango dira eta eurak egongo dira zalantzak argitzen. Astelehenean, azaroak 28, *Gure Himalaya* aurkeztuko du Alberto Inurrategik; azaroaren 29an, *Laos bizikletan*



ARTXIBOA

Orain hiru urte egindako mendi irteeran baino lagun gehiago elkartuko dira hilaren 27an.

Oier Sarasuak; eta azaroaren 30ean, *Mendi eskia Txilen* Ramon Iturricastillok.

ESAIT-EKIN BAT EGITEKO SINADURAK

Egunotan, bestalde, eskutitza bidali die Mendizale Elkartek bazkideei. Abenduaren 15ean batzar orokorra egingo duela jakinarazten die batetik, eta Esaiten eskariarekin bat eginez sinadura bilketa egingo duela adierazi bestetik.

Esaitetik Euskal selekzioaren aldeko manifestua egin du. Bertan lau puntu aipatzen ditu: Euskal selekzioari ez egonda, kiro-

lariak derrigortuta daudela bereak sentitzen ez dituen koloreekin parte hartzeri; euskal selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatu; Euskal Herriko federazio nazionalen beharra adierazi; eta guztien laguntza eskatu.

Esait koordinadorearekin bat eginez sinadura bilketa egingo du egunotan. Edozein kiroletan federatuta dauden bazkideei egiten die dei Murruxok ME sinatzeri hurrera daitezten. Lokaletik pasa daitezke interesatuak edo bestela, Mendi Asteko ekitaldietan, azaroaren 28an, 29an eta 30ean jarriko duten mahaian sina dezakete.

Hiruhaizpeko kobatik ateratako argazkia

Argazki lehiaketa bidez aukeratu du Murruxok MEk datorren urteko egutegia. 18 argazki aurkeztu zituzten lehiaketara, eta guztiak benetan dotoreak ziren. Ez zuten lan samurra izan Murruxokoko kideek aukeratzeko orduan. Olatz Pagaldai aretxabaletarren Hiruhaizpeko kobatik ateratako argazkia izan da irabazlea, eta egutegiaz gain 125 euroko saria jaso du.

Aurkeztutako guztiei eskerrak eman gura dizkiete Murruxokoko kideek eta hurrengo urtean ere animatzeko eskatu.



LABUR

Fran Miguelek berdindu egin zuen Luis Olaizolarekin eta hirugarren jarraitzen du

Gipuzkoako Xake Txapelketaren bosgarren jardunaldia jokatu zuten joan zen zapatuan. Luis Olaizola izan zuen aurkari Fran Miguelek eta berdindu egin zuten. Hala, hirugarren postuan jarraitzen du beste lau jokalarirekin berdinduta; 3,5 puntu dituzte bostok. Jardunaldi bi baino ez zaizkie geratzen txapelketa bukatzeko eta lehenengo postua lortzeko aukera dagoeneko galdu du Franek.

Bestalde, Sestaoko Nazioarteko Irekia jokatu dute Arlutz Xake Taldeko lau jokalariek domekan, azaroak 20. Nahiz eta talde osoa joan banakako txapelketa izango da: "Urtarrilean liga hasiko dugu eta poliki-poliki martxa hartzen joateko oso ondo datozkigu halako txapelketak", dio Aitor Alcaide Arlutzeko kideak.

Asteburuan bukatuko dute pilotariak lehen fasea eta oso larri dabilta hainbat bikote

Asteburu honetan bukatuko dute Gipuzkoako Txapelketako lehen fasea. Aretxabaletako bost bikote dabilta jokatzeko, hiru senior mailan eta bi kadete mailan, eta nahiko txapelketa txarra egin dute guztiek ere. Hala, joan zen asteburuan jokatuak partidu guztiak galdu egin zituzten.

Asteburu honetan partidu bakarra jokatu dute etxean, Errasti anaiek, hain zuzen. Bihar, zapatua, izango da, 12:00etan, eta Usurbilgo Huitzi eta Arruti izango dituzte aurrez aurre. Urtarrilen eta Perez de Labeaga Irunera joango dira jokatzera bihar, 16:00etan; Gardoki eta Akizu Beasainera joango dira domekan, 11:00etan, eta Lasagabaster eta Altzola Hernanira.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Irun 1902

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Arizm.-Segura

Lehen mailako gazteak.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. - Usurbil

Lehen mailako seniorrak.

Zapatua. 12:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Berio 2 UDA 2

Preferentea.

UDA 0 Antzuola 2

Bigarren mailako erregionala.

UDA/Arizm. 2 Zarautz 0

Ohorezko gazteak.

Oiartzun 2 UDA/Arizm. 0

Lehen mailako gazteak.

UDA/Arizm. 9 Urola 0

Lehen mailako kadeteak.

UDA/Arizm. 1 Eibartarrak 1

Bigarren mailako kadeteak.

Kostkas 2 UDA/Arizm. 1

Ohorezko infantilak.

UDA/Arizm. 2 Urola 0

Infantil txikiak.

UDA/Arizm. 4 Bergara 0

Emakumezkoen liga (seniorrak).

UDA 2 Eibar 0

Alebinak.

Com y tienda IKL 1 UDA 7

Areto futbola.

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D

ARETXABALETA

686 113 581 / 943 79 65 46



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA




ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu gidatzeko baimena atara barrixei gabez ez ixtie gidatzen?



ALBERTO TIJERO
Langillie



AMAIA MERINO
Langillie



IBAN FERNANDEZ
Langillie



NAGORE RICO
Langillie



DABID AGIRRE
Langillie



ARANTXA IZURA
Langillie

Ez dot pentsetan istripuek gutxiketako balixoko daue-rik neurrixok; gainera, txarto pentsetan jat gabez gidatzie debekatzie. Lehen-ean edo gerueu gidatu bi-herko daue gabez be, ez?

Txarto, oso zorrotza pentsetan jat hori neurri hori hartzie, zorrotzegixe. Ez dot uste neurrixekin gutxittu egingo dienik istripuek. Gaztie eta gaba badie arazue, autobu-sek bultzetu daixela.

Txarto, ez dot pentsetan istripuek gutxituko dittue-rik horrek. Ez dot pentsetan gaba danik arazue, beste faktore batzuk dauz kon-tuen hartu biherrekuek; alkohola, esaterako.

Oso-oso txarto. Gabez lane-rra fan bihera eukiz gero, edo larrialdi bat izenez gero, zer? L-ie kendu eta ibilli egingo daue automobile. Ist-ripuek gutxitu ez, baiñe tranpak egittie lortuko daue.

Istripuek ez diela gutxitu-ko. Pentsetan dot murriz-ketak eta debekuek sor-tzen gabitzela denbora gutxixen eta edonun bene-tako arazuei irtenbidie topau barik.

Ez dakit ba... Istripuek gutxiketie dan guztixe ondo pentsetan jat, baiñe ez dakit horrekin lortuko dauen. L-ie erueten dauenak, gaine-ra, kontu haundixaez ibil-ten diela pentsetan dot.

TXALOAKETATXISTUAK




TXISTUAK PLAZAKO ZORUA OSO LABAIN Kontu handiarekin ibili beharrean gaude Herriko Plazako arkupeetan, euria egiten due-nean oso labain egoten da-eta zorua. Herriar bat jausi egin da azken egunotan, eta hainbat puntu eman dizkiote buruan. Zahartuta dago zorua eta bustiz gero oso samur labaintzen dira oinetakoak; hortaz, ume zein nagusi, kontuz arkupeetan ibiltzerakoan. / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Tabernak eta saltokiak euskaratzeko ekimena

Herriko saltoki eta tabernetan euskaraz berba egitera bultzatze-ko ekimena jarri zuten abian Loramendi Euskara Elkarteak eta Euskal Herrian Euskarazek. *Hemen lehenengo berbia euskeraz ein zeinke* leloa zuen loretxoa aurkeztu eta banatu zuten herri-ko saltoki eta tabernetan.



ASTEKODATUA

600

MILA METRO KOADRO EMANGO DITU ERRENTAN UDALAK

Bainuetxeko industrialdean hasi eta Urkuluko bidegorrira bitar-tean 600 mila metro koadro inguru ditu Udalak. Errentan eman-go ditu lurrok, eta eskaera egite-ko baldintzak udaletxean daude.

BESTEKEESANA

“Hamaika urte daramatzat Arrasate Eskubaloi Taldeko presidente moduan eta, egia esan, pribilegio bat da niretzat talde honetako presidente izatea. Beste talde batzuetako presidenteei askotan entzuten diet kokoteraino daudela, baina ni oso gustura nago. Gainera, nire ingurukoek jarraitzeko esaten didatela ikusirik, ilusio handiagoz jarraitzen dut hemen.

Klubari oso etorkizun ona ikusten diot. Oinarria badago eta sendotu egin behar dugu oinarri hori. Hemendik bi urtera egin nahi dugun proiektua ez dago lehen taldean islatuta eta behetik hasi nahi dugu proiektu berri bat egiten, Arrasateko Eskubaloi Taldea guztiz herritzeko.

MARIANO ARRIETA
‘Astelheheneko Goienkaria’/05-11-14

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Pariseko plazatik

Pariseko plazatik dator notizia talde bat izan dela jenioz bizia. Kantatutzeroa noa bistan ikusia, kontsolatzeko triste dagoen guzia. Xenpelar bizi balitz hamasei bertso baino gehiago beharko zituzke-en Frantzia aldean gertatzen ari dena kontatze-ko. Frantzia parteko herrialde ugari gorrotoz kiskaltzen ditugu. Antza denez atzerritarrek omen dira bazter nahasleak. Komunikabide gehientsuenek hala diote behinik behin. Istiluak bi gazte haien heriotzaren ondotik etorri badira ere denok dakigu arrazakeria eta bazterketaren zorraz direla gertaerok. Eta ez bakarrik Frantzia, Europako beste edozein herrialde izan zitekeen istiluen epizentro. Izan ere, Bob Marley abeslariak zioen bezala, larruaren kolorea begiena baino garrantzitsuagoa den bitartean borrokek jarraitu egingo dute. XXI.mendeak ez

ditu gurasoen ohiturak galdu; lehengo lepotik darama burua. Talde eskuindarrak ugaritzen diharduten heinean xenofobia eta arrazakeria lasai asko indartzen ari dira. Herrialde aurreratuek geroz eta itxiago dituzte mugak eta sarbideetako zaintza areagotuz etorkinei oztopoak jartzea dute helburu. Etorkinen artean hala ere diru gehixeago dutenek bidea zabalxeago izan ohi dutela ematen du. Bitxia ezta?... Diruarekin ari garenean denok garaia erlijio berekoak!

Batzuentzat haserretzekoa, besteentzat beldurtzekoa; nola nahi ere arduratzekoa behin-tzat bada gero eta atzerritar gehiago gure artean ikustea. Egia esan, ez da jakiten zein asmorekin datozen baina errezelozko begiradak truka-tzea nahikoa da askoren susmo txarrak pizteko. Ulertzekoa den bezala bizimodu hobe baten bila datozela dirudi, nahiz eta ametsa amesgaizto bihurtzen zaien askori.

“Talde eskuindarrak ugaritzen diharduten heinean xenofobia eta arrazakeria lasai asko indartzen ari dira”

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a / 231. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Udalak omenaldia egingo dio herriko Mario Padilla txistulari eta euskaltzaleari

IKER BARANDIARAN

Udalak eta hainbat herritarrek merezitako omenaldia egingo diote asteburuan herriko seme Mario Padillari. Bandako zuzendaria, txistulari eta dantzari taldeen sortzailea, ikastolaren bultzatzailea eta askoz gauza gehiago izan da Padilla. Kontzertuak, kalejira eta beste egingo dituzte.

Mario Padillak ez du aspertzeko astirik izan. Hala definitzen dute hainbat herritarrek: "Oso gizon garrantzitsua izan da herrian, ez dago haren parekorik, oso langilea izan da beti. Ez du jakin ezetz esaten, eta egin duen lan guztia boluntario moduan egin du. Askor zor diogu eskoriatzarrok".

Egia esanda, Padillari omenaldia egiteko asmoa joan den udal agintalditik dator, eta Udalez gain, Olazar erretiratuen elkarteak, ikastola, txistulariak, dantzariak eta herritar ugari ibili dira Padillarek merezitako ekitaldiak antolatzen. "Kanpoko musikari ospetsuak ekarri beharrean, gurago genuen herriko jendeak esku hartzea. Are gehiago, ziur Padillak gurago duela horrela egitea".

PADILLAREN IKASLEEK ESKU HARTU

Esaterako, antolatzaileek gonbidapena bidali diete Padillaren ikasle guztiei —104 bat lagun— domekako kalejiran esku har dezaten. "Horietako askok aspaldi utzi zuten txistua alde batera eta beste asko kanpoan bizi dira; edozelan ere, ikasle izan zirenen erdiek dagoeneko esan digute etorriko direla", azpimarratu zuten antolatzaileek.

Hala, domekan, txistulari beteranoak 12:00etan elkartuko dira. Intxaurtxuetatik irten eta herri osotik kalejira egin ostean, udaletxe ondoan bukatuko dute. Padillaren omenez txistu zaharrei hautsa kendu eta kalejira egiteko gogotsu daudela aitortu digute aspaldiko ikasleek.

'MARIO' BIRIBILKETA KONPOSATU

Mario Padilla, besteak beste, herriko bandako zuzendari izan zen. Bandakoek ez dute hori ino-



Argazkian, Mario Padilla kalejiran, txistu eskolako ikasle batzuekin.

Egitarau mardula, elkarlanean egindakoa

Udalak egitarau mardula antolatu du herrigintzan halako lana egin duen gizon horren omenez. Herriko hainbat elkarte eta taldek lagundu dute hori guztia egiten: Olazar erretiratuen elkarteak, ikastolak, txistulariek, dantzariak, musika bandak...

Bihar, zapatua, hasiko dira ekitaldiak. 19:00etan, *Txistua eta dantza gure kulturaren* erakusketa inauguratuko dute Ibarraundi museoan. Udaleko Kultura Saileko arduradunaren esanetan, "Padillak eta berak zuzendutako taldeak egindakoaz gain, Gorosarri konposatzailearendako ere txoko bat atondu dugu erakusketan".

Horren ostean, 20:00etan, txistulari taldeak eta Musika Eskolako Bandak kontzertua egingo dute parrokiaren. Txistulariek honako piezak joko dituzte: Jesus Guridiren *Mendiko soñua* eta Mokoroaren *Sorgin dantza*, hain zuzen ere.

Jarraian musika bandak esku hartuko du, eta honako hau izango da erreperatorioa: Mozarten *Txirula magikoa*, Vangelisen *Chariots of fire* eta Jacques Offenba-

chen *Ballet Parisien*. Bukatzeko, txistulariek eta bandak biek batera hiru pieza joko dituzte: Manuel Gaintzaren *Biribilketa*, J. Maria Gurrutzagaren *Kontrapas 1* eta Jesus Urrutiak eta Imanol Andetxagag konposatutako *Mario* biribilketa. Azkenean pieza hori Mario Padillaren omenez idatzi dute, eta estreinaldi mundiala izango da zapatukoa.

Bestalde, etzi, domeka, musika gehiago izango da herrian. Hala, 12:00etan Padillaren txistu eskolako ikasle ohiak Intxaurtxueta batuko dira. 104 lagun gonbidatu dituzte, ikasle guztiak, baina ez dakite zehatz zenbatek esku hartuko duten.

Txistulariek Intxaurtxuetatik irten eta autobus geltokira joko dute. Handik Olazarrena, Dorletara, HUHEZira eta goiko kalera. Horren ostean, beharantz egingo dute, eta kale nagusitik herriko plazara jaitsiko dira. 13:00etan, Udalak omenaldi ekitaldia egingo dio Padillari. Udaletxe alboan izango da hori, eta sorpresak izango direla aditzera eman digute.

Jesus Urrutiak eta Imanol Andetxagag 'Mario' izeneko biribilketa konposatu dute

Padillaren txistu eskolako ikasle guztiak gonbidatu dituzte kalejiran esku hartzeko

Ibarraundi museoan 'Txistua eta dantza gure kulturaren' erakusketa ikusgai

laz ere ahaztu, eta zapatu iluntzean parrokiaren egingo duten kontzerturako oso gauza berezia prestatu dute. Hain zuzen ere, bandako Jesus Urrutiak eta Imanol Andetxagag biribilketa pieza bat konposatu dute txistulariek eta bandak jotzeko. Biribilketa horri *Mario* izena eman diote. Pieza horren estreinaldia parrokiako kontzertuan egingo dute. Eta konposatzaileek aditzera eman digutenez, asmoa da urterotz jotea pieza hori, danborradan.

DANTZA ETA TXISTUA ERAKUSKETAN

Horrez guztiaz gain, Ibarraundi museoan erakusketa bitxia jarri dute. Bihartik, zapatua, abenduaren 4ra arte egongo da ikusgai. *Txistua eta dantza gure kulturaren* izena du eta hainbat material dituzte han. Gorosarri dantza taldearen gainbegiratu egingo dute hainbat argazkiren bitartez. Horrekin batera, jantziak, ezpatak, arkuak, partiturak eta beste batu dituzte erakusketan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORRIATZA	
Udalaretoa	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udalzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gazte laguntzaila	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Autokoi	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Talesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Garutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Erretiratuak (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzailak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

ERRETIRATUENDAKO MAHAI JOKO TXAPELKETA

Olarar erretiratuaren elkarteak erretiratuendako mahai joko txapelketa antolatu du. Briska, mus, tute, domino eta seihoetara jokatzeko aukera izango da. Interesatuak eman izena elkarteko bulegoan lehenbailehen.

FUTBOL ARETO ETA SASKIBALOI PARTIDUAK

Bihar, zapatua, hainbat norgehiagoka egingo dituzte. 16:00etan, junior mailako emakumezkoen saskibaloi taldeak jokatu-ko du Oiarso taldearen kontra. 18:00etan, berriz, 1. mailako areto futbol taldeak FS Santurtzi taldea izango du aurkari.

UMEENDAKO IPUIN KONTAKETA PEIO AÑORGAREKIN

Eguaztenean, hilaren 23an, umeendako ipuin kontaketa egingo dute bibliotekan, 18:00etan. Peio Añorga izango da ipuin kontatzailea, eta 5 urtetik gorako lagunei zuzenduta dago ikuskizuna.

Gaur, egubakoitza, 'Ixa' umorezko antzezlan Unibertsitatean


I.B.

Gaur, egubakoitza, hileroko hitzordua izango dute Eskoriatzako antzerki-zaleek Unibertsitatean. Udalak antolatu ohi ditu ikuskizun horiek. Hika taldeko Mikel Laskurain aktoreak *Ixa* umorezko antzezlan eskainiko du. 22:00etan izango da hori.

Manuel Tejero Benitez edo Ixa —bere identifikazio txartelak dioen moduan— La Navaleko langile ohiaren abentura da *Ixa* ikuskizunean kontatzen dutena.

Hika antzerki taldearen ekoizpen bat da. Arantxa Iturbek idatzi zuen, eta Agurtzane Intraurraga da ikuskizunaren zuzendaria.

Ixa komedia basatia da, La Navaleko langile ohi baten abentura eta zoritxarrak kontatzen dituena. Protagonista edozein gertakizun sozial, politiko edo kultur arlokoetara joango da, taldean sartu eta anonimotasunean aritzeko.



Aspaldian Mikel Laskurain aktorea antzezlan askotan ikusteko aukera dago.

Protagonistak, ikuskizuna atzera bota dutela ikusita, ikusleak bahituko ditu, ikuskizunaren truke zor dizkioten 60 euroak kobratu ahal izateko. Horren

bestez, egoera bereziak sorraziko ditu.

Mikel Laskurain aktore beragararrak 70 minutuko ikuskizun ganberroa egingo du.



Antontxu eta azpiko etxeak urak hartu ditu

Astean, Antontxu baserrian eta azpiko etxeetan uholdeak izan dira. Autobidearen lanetako zangak gainezka egin dute. Hala, Antontxu baserria urak inguratu du, eta azpiko etxeetako garaje eta ortuak urak hartu ditu. Antontxukoek esan digute joan den egubakoitzean Euroestudios enpresako segurtasuneko arduradunari deitu ziotela, zangak gainezka egin behar zuela esateko. Ez zuten ezer egin, eta astelehenean bat-batean milaka litro jausi ziren baserriaren eta etxeen gainera. Bizilagunak oso arduratuta daude. / ARGAZKIA: NEREA ZUBIETE.

LABUR

Gabonetako marrazki lehiaketa, eta gaztaina erreak

Udalak Gabonetako marrazki lehiaketa antolatu du. Lehiaketan, Eskoriatzan edo Leintz Gatzagan bizi diren 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek esku hartu ahal izango dute. Hau da, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleek, hain zuzen ere.

Edozein teknika erabili ahal izango dute, baina folio tamainako papera izango da aukeratu beharreko euskarria. Lagun bakoitzak marrazki bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara.

Lanak ludotekan edo bibliotekan aurkeztu beharko dituzte abenduaren 2a baino lehen, eta maila bakoitzeko artean sari bat zozketatuko dute. Aurkeztutako lan guztiak kiroldegian jarriko dituzte erakusgai Gabonetan.

Bestalde, eguenean, hilaren 24an, gaztaina erre eguna ospatuko dute Luis Ezeiza ikas-tetxeko patioan. 17:00etan elkartuko dira, eta eskulan tailerrak jarriko dituzte. Horrez gain, gaztaina erreak eta txokolata beroa eskainiko diote hurbiltzen diren ume eta gaztetxo guztiei. Luis Ezeiza eskolako guraso elkarteak antolatu du ekimen hori.


Dendariak haserre daude Santa Ana auzoko lanekin


Santa Ana auzoa eraberritzeko egiten dabilzan lanek hankaz gora jarri dituzte hainbat kale. Arrazoi horregatik, auzoko hainbat dendari haserre daude, eta joan den eguenean Udaletxera hurbildu ziren kezatzera. Alkattea, zinegotzi bat eta lanek egiten dabilen Amaral enpresako arduradun batzuk langileekin elkartu ziren.

Santa Anako dendariak haserre daude denda inguruko lanek urriaren 15erako bukatuta egon behar zutelako eta ez dakitelako noiz bukatuko diren. Horrez gain, arduratuta daude atzerapenak Gabonetako salmentetan kalte handia egin diezaielako.

Amaral enpresak agindu zien lanak lehenago bukatzeko langile gehiago jarriko zituela, eta sarbideak eta argiztapena hobetuko zituela. Bestalde, Udalak aditzera eman du Amaral enpresari eskatu diola lanak lehenbailehen bukatzeko.

Dendariak esan digute aste honetan ez dituztela langile gehiago lanean ikusi, eta oraindik ez dizkietela sarbiderik ezta argiztapenik jarri. Kezkati daude Udalaren eta Amaralaren jarrerarekin.




FAGOR 

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

 **MONDRAGON**
CORPORACION COOPERATIVA

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko azaroaren 18a / 172. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu dutenen zerrenda argitaratu dute

UBANE MADERA

44 etxebizitza zozketatu arren, 42 laguneren izenak argitaratu ditu Etxebidek. Kontua da bi etxebizitza (zailtasunak dituztenendako egokitutakoak) adjudikatu barik utzi dituztela, hutsik. Orain, hemen inguruko eskaerak begiratu dituzte, bi etxe horiek adjudikatzeko.

Bestela, 35 urtetik beherakoendako 32 etxebizitza adjudikatu zituzten joan den egunean; 35 urtetik gorakoendako zortzi eta bi etxebizitza guraso bakarreko familiendako. Hori guztia notario aurrean egin zuten, Etxebizitza Sailburuorde Jabier Dean eta Mertxe Mondragon alkateak lagunduta, besteak beste.

BEHIN-BEHINERAKO ZERRENDA

Edozelan ere, argi utzi beharra dago etxebizitza bat eskuratu dutenen zerrenda hori behin-behinekoa dela. Izan ere, baliteke tokatu zaion etxeari norbaitek uko egitea.



Argazkian, notarioa, Jaurlearitzako ordezkariak eta herritar bat, zenbakiak ateratzen.

Hala gertatzen bada, uko egin duen pertsona horrek duen zenbakiaren hurrengoari adjudikatuko diote libre utzi duen etxebizitza.

Bestalde, joan den eguneko zozketaren datuak portzentajeetan

ere helarazi dizkigu Etxebidek. Hala, etxebizitza eskuratuko dutenen %61,90 Aramaiokoak dira (26 lagun); %28,57 lagun dira Aretxabaletakoak (12) eta gainerakoak, %9,52 Eskoriatzakoak (lau lagun).

Etxebideren zerrenda

- Victor Maria Aldai Oruna
- Aritz Arrasti Astondoa
- Javier Arriaran Mendiandia
- Asier Arrizabalaga Elortza
- Naiara Arrizabalaga Elortza
- Oihana Arrizabalaga Elortza
- Aitziber Axpe Altuna
- Ekaitz Aiestui Arana
- Ibai Bailez Kortabarria
- Maria Pilar Bellon Martin
- Juan Jose Carrasco Gartzia
- Arantzazu Kortabarria Zabala
- Unai Egurtza Mayoral
- Saioa Elejalde Aiestui
- Iker Elespuru Lete
- Gurendane Etxebarria Mendizabal
- Iban Fernandez Fernandez
- Yago Galindez Goronaeta
- Amaia Garaitonandia Ganboa
- Javier Garaitonandia Ganboa
- Ruben Gomez Hernandez
- Alfonso Gonzalez Gartzia
- Naiara Gutierrez Lasaga
- Josefa Horrillo Ramos
- Jesus Maria Ibabe Ortueta
- Alberto Ibabe Zubizarreta
- Jaime Ibabe Zubizarreta
- Nerea Izurrategi Idigoras
- Igor Lasaga Gutierrez
- M. Teresa Lopez de Vergara Astola
- Iñigo Molero Mardaras
- Esteban Mulas Aljonilla
- Osana Nafarrate Zurbano
- Leire Junkal Pagaldai Gartzia
- Javier Reguero Carazo
- Benito Sanchez Gartzia
- Josune Uribarren Axpe
- Miren Begoña Uribarren Liebana
- Iñaki Urizar Barrantia
- Jokin Urteaga Viamonte
- Ruben Varilla Gutierrez
- Jon Zubizarreta Eraña

(Goiko zerrenda behin-behinekoa da, aldaketak egon daitezkeelako)



Urtegiko urak sekula baino beherago daude

Baina, Albinako urak behean egotearen arrazoa ez da sikatea dagoela, baizik eta urtegia garbitzen dabilatzala. Jakinarazi digutenez, urtegiko hondoan pilatu den lokatza kendu egin behar izaten dute zenbait urtetik behin. Izan ere, Albinak kubeta edo ontzi forma dauka eta horren ondorioz, lokatza pilatzen da hondoan. Hala, lokatza hori kendu ezean, urtegiak galdu egingo luke ura pilatzeko gaitasunaren zati handi bat. Kontuak kontu, egunotan ikusgarri dago Albina, gutxitan izango da egunotan moduan. Bestelakoan artean, orain arte urpean zegoen bide zaharra geroago eta garbiago ikusten da, ondoko argazkiak erakusten duen moduan. / U.M.

LABUR

Harreman elkarteari emango diote dirua

San Martin eguneko azokan batutako 400 euroak gobernu kanpoko Harreman elkarteari emango dizkiete eskolakoek. Aurrerago, Harremaneko ordezkariak Aramaioko eskolara joango dira, diru hori zein proiektutarako erabiliko duten esplikatzeko.

KZgunea bi aste barru zabalduko dute berriro ere

Azaroaren 28an etorriko da KZguneko arduraduna, 09:00etatik 11:00etara. Mintegi bat ere emango du: Asteburu bat Euskal Herrian; 11:00etatik 13:00etara izango da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bakia	945 44 50 03
Obelbidea	945 44 50 16
Erebitza (Arrasate)	943 79 71 99
Corutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Basa eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Psikiatza	945 44 50 83
Zubiko Eskualdea	945 43 01 67
Saltzitzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ORAINGO BARIKUAN, ZINEMA

Jonathan Demmek zuzendutako *El mensajero del miedo* (*The manchurian candidate* da jatorrizko izenburua) filma emango dute gaur. 130 minutu ditu, 2004koa da, AEBetan egindakoa. Besteak beste, Denzel Washington, Meryl Streep eta Liev Schreiber aktoreek parte hartzen dute film horretan. Zinema saioa 22:00etan hasiko da, euro baten truke. Kuwaiten izandako AEBetako armadako komandante bat da filmeko protagonista. Hura eta gerra hark utzi zizkion amesgaizto beldurgarriak, hain zuzen ere.

UMEENDAKO ZINEMA, EUSKARAZ

Marraski bizidunen beste film bat aukeratu dute domekarako, honako hau ere euskarazko bertsiotan emateko: *El pudding mágico*. 80 minutuko filma da. Koala bat, marinel bat, pinguino bat eta, zela ez, budin (*pudding*) bat dira abenturen protagonistak. *El pudding mágico* dago oinarrituta ipuin australiar batean, 1917an idatzitakoa.

85 lagunek parte hartu dute Udalak antolatutako argazki lehiaketan

U.M.

Pozik daude Udalean II. argazki lehiaketak izan duen erantzunarekin, 85 lagunentzako nahiko handia da-eta. Guztien artean, epaimahaiak hamar argazki nabarmendu ditu: hiru onenak eta zazpi finalista. Eta horien artean irabazlea izan da Unai Kortabarria.

Margo Lehiaketa 2005 da lehiaketa irabazi duen argazkiaren izenburua. Lehen esandako moduan, Unai Kortabarria aramaiokarra da egilea.

Bestalde, Iñaki Nafarratek eskuratu du bigarren saria, *Negua* argazkiarekin eta Aitziber Aginagalderekin izan da hirugarren saria, *Belar lehorra eta belar freskoa* izenburua duen argazkiarengatik.

ZAZPI FINALISTA

Horiez gainera, beste zazpi argazki ere aukeratu ditu epaimahaiak, finalista moduan; honako hauek: Itxaso Lopez de Bergararen *Hotza* eta *Bixente* argazkiak; Mikel Igoaren *Sagarondoak* izeneko argazkia; Aitziber Aginagalderekin *Udazkeneko argi izpiak* eta *Elur ekaitz berri baten mehatxuarekin* argazkiak; Iñaki Mondragonen *Ilunabarra* argazkia eta Oier Kortabarriaren *Udako egunsen-*



ARAMAIOKO UDALA

'Margo Lehiaketa 2005' argazkiarekin irabazi du Udalaren argazki lehiaketa Unai Kortabarriak.

tixe, Aramaioko lainopean izeneko argazkia.

PARTAIDE GEHIENAK HERRIKOAK

Lehen esandako moduan, 85 lagunek parte hartu dute lehiaketan. Udaletik adierazi digutenez, gehienak Aramaiokoak. Epaimahaiari dagokionez, berriz, hiru

argazkilarik osatu dute: Aramaioko Faustino Gorostitzak eta Arabako argazkilarien elkarte kide Joseba Grajalesek eta Antxon Ameyugok.

LEHIAKETAREN HELBURUAK

Bestalde, Udaletik jakinarazi digutenez, argazki lehiaketa horren


helburua da Udalaren argazki artxiboa osatzea: "Horrela, kaleratzen dituen egutegi, foileto eta abarretan erabiliko dira lehiaketa hauetan aurkeztutako argazkiak, beti egilearen izena jarrita". Besteak beste, Udaleko Euskara zerbitzuak aterako duen 2006ko egutegiaren kaleratutako dituzte.

Heziketa ekimen berezia abiarazi dute Azkoaga auzoan, txikienendako

U.M.

Guraso talde batek 3 eta 6 urte bitarteko umei zuzendutako heziketa ekimena bultzatu du, Azkoaga auzoan. Ezaugarri jakin batzuk dituen hezkuntza mota nahi dutelako abiarazi dute ekimen hori aurtengo ikasturtean.

Honako ezaugarriak nahi dituzte seme-alabendako heziketan: "Umeak etxean moduan egon daitezkeen nahi dugu; Naturarekin harreman estua izatea eta fantasia eta irudimena lantzea. Horrez gainera, gura dugu umeek erabiltzen duten materiala naturala izatea (argizaria, egurra, artilea, harria...) eta hainbat adinetako umeak elkarrekin egotea; izan ere, batzuek besteengandik ikasten dute eta nagusiek ardura hartzen ikasten dute. Horrez gainera, gura dugu jolasari inportantzia ematen dion heziketa eta irakurketa eta idazketa prozesuak beranduagorako uztea, uste dugulako gerora



U.M.

Argazkian, heziketa ekimen horretako umeak elkartzeko egokitu duten gela, Azkoaga auzoan.

hobeto ikasiko dutela bai irakurtzen eta bai idazten ere".

Hala adierazi digute heziketa ekimen horren bultzatzaileek.

ARAMAIOKOAK ETA INGURUKOAK

Halaber, kontatu digute 11 ume elkartzen direla orain. Gehienak Aramaiokoak direla, eta apur-

txo batzuk inguruko herrietakoak. "Bi urte eta erditik gorako umeak elkartzen dira; nagusienek lau urte dituzte, bost egiteko".

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a / 28. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

Gutxienez autobus-linearen erdia Gatzagatik pasatzeko eskatuko dute

XABIER URTZELAI

Gatzagako elkarte guztiak egon ziren ordezkatuta eguzten arratsaldean egin zuten batzarrean. Garraioaren komisioko Diputazioak emandako aukerak azaldu zituen. Horrekin konforme ez, eta herritarrek beste proposamen bat aurkeztuko dute.

Garraioaren publikoaren arazoa aitzakia ederra da gatzagarren behin eta berriro elkartzeko; azken hilabeteotan hainbat batzar egin dituzte, eta autobusen kontuarekin inoiz baino elkartuago daude; borroka egiteko gogoz, gainera.

Eguazteneko batzarra Diputazioak egindako proposamenak azaltzen hasi zuten. Hiru izan ziren proposamenak, baina herritarren esanetan horietako bi aintzat hartzekoak ere ez ziren izan. Hirugarren proposamena zen egunean birritan pasatzea Eskoriatzatik Gasteizera doan autobusa, eta horrekin batera, umeak eskolara eramaten dituen autobusa ere erabiltzea. Baina Gatzagarrendako hori ez da nahikoa, besteak beste, asteburu eta jaiegunetan ezingo dutelako autobusa hori erabili.

Proposamen horiek baztertua, herritarrek euren eskaera



EDORTA ARANA

Pilotalekuaren horman pankarta jarri dute, autobus zerbitzurik ez dutela salatzen.

egin zuten: hasteko, gatzagarrek autobus-linea osoa gura dute, baina badakite hori lortzea oso gaitza izango dela, eta Udalaren bitartez zera eskatuko diote Diputazioari: gutxienez autobus-linearen erdia Gatzagatik pasatzeko.

Eta eskaera hori Diputazioan aurkezteko komisiokoek gutuna

emango diote Gatzagako alkateari. Izan ere, Koldo Azkoitiak argi azaldu zuen ez zituela herritarren eskaerak zuzenean jasoko.

ESKORIATZARREN LAGUNTZA

Eskaera hori egiterakoan, herritarrek ondo dakite eskoriatzarren laguntzarekin indar handiagoa izango dutela. Komisio-

koek azaldu diguten moduan, autobusa Arlabango errepide zaharretik igarotzen bada Eskoriatzako hainbat auzotarrek autobus horiek erabili ahal izango dituzte; besteak beste, Zarimutzeko, Mazmelako eta Maringo bizilagunek. Hala, eskoriatzarrei borroka horretan laguntzeko eskatu gura diete.

LABUR

Abian da Gabonetako marrazki lehiaketa

Egin zure Gabonetako marrazkia lehiaketa antolatu dute 6-12 urte arteko gazte gatzagar eta eskoriatzarrendako. Gatzetxo bakoitzak marrazki bakarria aurkeztu ahal izango du. Folio baten tamainako paperean egin beharko dute marrazkia, eta marrazketako teknika librea izango da. Lanak ludoteketan edo liburategian aurkeztu ahal izango dira abenduaren 2a baino lehen. Lan guztiak Eskoriatzako kiroldegian jarriko dituzte erakusgai.

'Enplegu bat lortu' izeneko ikastaroa KZgunean

Datorren astelehenean, hilak 21, egongo da KZguneako arduradun Aitor Madrid Gatzagako KZgunean. 09:00etatik 13:00ak arte egongo da bertan, eta Internet-zaleek dituzten zalantzak argitzearekin batera ikastaroa ere emango du. Astelehenean, 11:00etatik 12:00etara *Enplegu bat lortu* izeneko ikastaroa emango du. Hala, Interneten lana nola bila daitekeen irakatsiko du ordubeteko saioan.

Zapaturu elkartzen dira 14-16 gatzagar, dantzan egiteko

X.U.

Azaro hasieratik dabilta hainbat gatzagar dantza ikastaroan. Zapatu arratsaldeetan dute hitzordua, 18:00etatik 19:30ak arte, baina apuntatu gura duenak oraindik aukera du horretarako.

Gasteizen bizi den Nairelis kubarren ematen ditu dantza eskolak, eta nongoa den jakinda, bistan da punta-puntako irakaslea

daukatela. Dakigunez, 14-16 laguneko taldea elkartzeko zapaturu, baina gizonetako gehiago behar dituzte. Antza denez, ez dira larregi animatu, eta dantza egitea bi lagun kontua izaten da; batzuetan, behintzat.

SALSA, TANGO...

Hasiera batean areto-dantzak irakasteko asmoarekin hasi ziren, baina azkenaldian martxa handiko dantza saioak egiten dabilta. Izan ere, azken boladan eza-

gun egin da *reggaeton*-a, eta musika estilo hori nola dantzatzeko den ere ikasten dabilta. Hain zuzen, urtarrilera arte iraungo du ikastaro horrek, eta interesatuta dagoenak aukera dauka izena emateko. Horretarako Labideako bulegora joan beharko dute; hil bakoitzeko 30 euro ordaindu behar dira.

Horrelako ikastaroarekin, datorren urteko Gatzagako jaietan ez da aitzakiarik egongo dantzari ez egiteko.



GOENKABA

Arrasaten Natalio Maiztegi dantzari ohiari egindako omenaldiko erretratua.



AZKARATE
aroztegia




Arotz lanetan behar duzun guztia




Zoru aukera zabala

Tarimak

- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020 • www.goiena.net/blogak/azkarate



BERRIKUNTZAK:

- PROGRAMAZIOA
Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)
- INFORMATIBOAK
Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- 16 MM: Film laburren saioa
- MOTZEAN: Herritarrei elkarrizketak
- DIDJERIDU: Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetscea

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



Zatoz gure musikaz goatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60



LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

IOSU
harategia
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

Mitartegorai

Baserri turismoa
eta taberna



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51



TABERNA-BERRI
JATETXEA

Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

